

BIZIKIDETZA PLANA

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	3
2. IKASTETXEAREN EZAUGARRIAK.TESTUINGURU SOZIOLOGIA..5	
- Ingurune sozial, ekonomiko, kultural eta lanekoari buruz. Ikastetxean duen eragina.	
- Familia maila sozioekonomikoa	
- Familien maila kulturala	
- Testuinguru soziolinguistikoa: euskararen egoera Amurrian.	
3. ELKARBIZITZA PLANA EGITEKO JARRAITUTAKO PROZESUAREN DESKRIBAPENA.....	9
- IKASTETXEKO BESTELAKO DOKUMENTUEKIN DUEN LOTURA	
4. BIZIKIDETZAREN DEFINIZIOA.....	12
5. IKASTETXEKO BIZIKIDETZAREN DIAGNOSTIKOA.....	13
6. HELBURU OROKORRAK.....	14
- Elkarbizitza-giroarekin loturiko helburuak	
- Inplikazioarekin eta partaidetzarekin loturiko helburuak	
- Hezkidetza	
- Baloreak	
- Kulturartekotasuna	
- Ikaskuntza emozionala	
- Curriculuma	
7. HELBURU LORPENA SUSTATZEKO EGITURAK.....	16
- Ikastetxean	
- Ikasleak	
- Irakasleak	
- Tutoreak	
- Orientatzailea	
- Zuzendaritza Taldea	
- BAT taldea	
- Eskola Kontseilua	
- Familiak	
- Beste egitura batzuk: Hezkidetza, Ongizate emozionala	

8. JARDUTEKO IRIZPIDEAK ETA ILDO OROKORRAK.....	22
- Jarduteko irizpide nagusiak	
- Jarduteko ildo orokorrak	
9. BIZIKIDETZA PLANAREN URTEKO ZEHAZTAPENA.....	26
10. ZABALKUNTZA.....	28
11. BIZIKIDETZA PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.....	29

PROIEKTUA GARATZEKO URRATSAK

1. PROIEKTUA NOLA GARATUKO DEN: TESTUINGURUA ETA EZAUGARRI OROKORRAK ZEIN BEREZIAK.....	31
2. PROIEKTUAREN ANTOLAKUNTZA-SISTEMA ETA LANAREN PLANIFIKAZIOA.....	32
3. PROIEKTUA ABIAN JARRI ETA SEGIDAN EMANGO DITUGUN PAUSUAK.....	33
4. HELBURUEN ETA PROIEKTUAREN LORPEN MAILA.....	35
5. PROIEKTUAN ZEHAR ERABILIKO EBALUAZIO PROZESUAREN LABURPENA.....	36
6. PROIEKTUAREN URRATSAK.....	36
7. ELKARBIZITZA HOBETZEKO NEURRI OROKORRAK.....	44
8. ERANSKINAK.....	48

1. SARRERA

Lisboako 2001eko martxoko goi- bileran hezkuntza-sistemaren garrantzia azpimarratu zen, elkarbizitza, gizarteratzea eta herritartasunarekin loturiko alderdiak jorratu ziren.

Horren ondorioz, hezkuntza-sistemaren helburuetako bat gaitasun sozial eta gizabidezkoak garatzea da, elkarbizitzarako gaitasuna alegia (236/2015 Dekretua, EAEko eskola-curriculumeko zeharkako oinarritzko gaitasuna). Bizitzarako ikasketarik baliagarriena pertsona bakoitzak bere buruarekiko eta beste pertsonetikiko harreman positibo bat lortzea da, eta hori da hezkuntzaren ardatz nagusia, zuzentasuna, berdintasuna, elkartasuna, elkarrekiko errespetua eta indarkeriarik ezaren balioei dagokienez. Horregatik, XXI. mendeko heziketaren erronka elkarbizitza, bakea eta giza-eskubideen aldeko heziketaren bidez aurrera egitea da.

Hezkuntza-esparruan, elkarbizitza hezkuntza-komunitatea osatzen duten eragile guztien erantzukizuna da. Hori dela-eta, esparru horretan jarduera positiboak sustatu behar dira, eta proposamen eta berariazko esku-hartze bidez elkarbizitzaren kudeaketa (ikastetxearen eta bere inguruaren arteko harreman positiboa, bere araudia, eraketa, eskola- curriculumaren kudeaketa...) sustatuko duten taldeak eratu behar dira. Horrez gain, Elkarbizitza plana ikastetxeko beste dokumentu eta planekin adostuta dago (AJA, Bizikidetza eta Jazarpen Plana, Hezikidetza Plana, Tutoretza Plana, ...). Dokumentua hauek nagusiki erantzungo diote ikastetxean elkarbizitza positiboa bermatzeko beharrari eta ikasleek arian-arian Elkarrekin bizitzen zeharkako oinarritzko gaitasuna eskuratzeko prozesuari.

1.2. Arau-esparrua eta bestelako xedapenak

Gure hezkuntza-sisteman indarrean dauden lege orokorrek eta dekretuek elkarbizitzak ikastetxean duen garrantzia jaso eta haren Kudeaketa arautzen dutela kontuan hartu behar ditugu.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrari buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren 5.2. artikuluan zehazten dira elkarbizitzarako planek jaso behar dituzten alderdiak:

“Elkarbizitzarako plan horrek berdinen artean, generoen artean eta kulturen artean elkarbizitzarako funtsezko oinarritzat hartuko du norberaren eskubideak baliatzea eta besteen eskubideak errespetatzea, baita irakasleen, ikasleen eta irakasleak ez diren langileen arteko harremanetarako ere. Agiri horretan, gatazkak modu baketsuan ebazteko, adiskidetzeko eta kaltea ordaintzeko bitartekotza- prozedurak jaso beharko dira, baita elkarbizitzarako hezkuntza- konpromisoak hartzeko zuzentarauak eta ikastetxean elkarbizitzaren behatokia antolatzeke neurriak ere”.

Elkarbizitza plan honen prestaketa-prozesuan kontuan hartu dira Saileko hainbat zerbitzuek (Hezkuntza Berrikuntza eta Ikuskaritza) lehenago eginiko dokumentuak, eta horien artean aipamen berezia merezi du Elkarbizitzaren Behatokia sortzeko eta Urteko Elkarbizitza Plana prestatzeko gidak (Eusko Jaurlaritza, 2008). .

Elkarbizitza Plan hau elkarbizitzaren inguruko gure antolaketa eta funtzionamendua zehazten duen IES ZARAOBE BHI-ren dokumentuetako bat da. Berak ezartzen ditu gure hezkuntza-komunitateak partekatzen duen elkarbizitza-ereduaren ildo nagusiak, lortu nahi ditugun helburuak, horiek lortzeko eta plana bera ebaluatzeko egokiak iruditzen zaizkigun jarduerak.

Ikasturte bakoitzean, Urteko Planean, lehenetsi nahi ditugun elkarbizitza-helburuak zehaztuko ditugu eta helburu horiek lortzeko berariazko ekintzak antolatuko ditugu. Plan hau lantzean kontuan izan ditugu gure komunitatean indarrean dagoen araudia eta ikastetxea antolatzeko eta kudeatzeko gure dokumentuak.

Ikasturtean onartutako IHPko helburuen artean elkarbizitza positiboaren sustapena aipatzen da, gatazkak konpontzeko elkarrizketa, errespetua eta komunikazioa erabiliz eta elkarbizitza urratzen duten egoerak saihesteko prebentzio-jarduerak garatuz. Bestetik, ikasturtean onartutako AJAn azpimarratzen dira elkarbizitza sustatzeko eta gatazkak konpontzeko prozedurak, eta ikasleen parte hartzea sustatzen du ikastetxeko elkarbizitza-araudiaren prestaketan.

Tutoretzako Ekintza Plana (TEP) lehen mailako baliabidea da proposaturiko elkarbizitza-helburuak lortzeko ekintzen garapenerako.

Horrez gain, azken ikasturteetako urteko memoriak argi azaldu dute elkarbizitza positiboaren eta gatazken prebentzioaren garapenerako egituren antolaketa indartu beharra, eta helburu zehatz eta errealistagoak formulatzearen egokitasuna.

Plan honen helburua da, denen adostasunez, gure ikastetxerako nahi dugun elkarbizitza-eredua definitu eta bideratzea. Gure ustez, elkarbizitza positiboa, berez hezkuntzaren helburu bat izateaz gain, irakasteko eta ikasteko prozesuak hobetzen dituen gure institutuko-giroaren oinarria da, eta eragin zuzena dauka ikasleen emaitzen hobekuntzan.

Ondorioz, Plan hau pizten duten printzipio eta balioak hauek dira:

- Pertsonenganako eta denon artean adostutako arauetikiko errespetuan oinarrituriko elkarbizitzaren sustapena.
- Era guztietako bazterkerien kontra prebentzio lana egin.
- Komunitateko estamentu guztien kooperazioa, konpromisoa eta erantzukizuna bizitzeko ikastetxe egoki, segurua eta hezigarri bat lortzeko.
- Arazoak eta konfliktuak aurreikusten ahaleginak egin.
- Protokoloak finkatu ondoren erabili. –Konfliktuak eta arazoak sortzen direnean bideratzen saiatu finkatutako protokolen bidez.
- Ikasle guztien integrazioa, beren ezaugarri pertsonalak eta sozialak zeinahi izanik ere.
- Gatazkak modu baketsuan ebaztea, elkartasuna eta enpatia.

Hitz batean, lortu nahi duguna da gure ikasleek ezagutu eta praktikan jar ditzatela eskolatzearen amaieran lortzea espero dugun balio, jarrera eta portaerak.

IES ZARAOBE BHI institutuaren hezkuntza-proiektuak, besteak beste, helburu hauek ditu:

1. Gure ikasleek tolerantzia, errespetua, askatasuna eta elkartasuna bezalako balioak barneratzea, balio horiek landu, garatu eta gaurko munduan duten esanahia eta ondorioak ulertzea bideratutako jardueren bidez. Balio horiek erreferentzia izango dira eguneroko lanean.
2. Elkarbizitza Planaren eraketak hezkuntza-komunitate osoaren partaidetza eskatzen du, ikasleen, irakasleen, gurasoen eta irakasleak ez diren langileen arteko partaidetza, elkarbizitza, eta elkarrekiko errespetuaren sustapena, ikasteko eta elkarbizitzarako benetako komunitate bat osatzeko. Partaidetza ezinbestekoa da irakasleak, ikasleak, familiak eta irakasleak ez diren langileek onartuko duten plan sendo bat lortzeko.

Elkarbizitza Plana eta eraturako bestelako plan edo dokumentuen arteko loturak azaltzea nahi dugu, hala nola, IHP eta (AJA) Antolamendu eta Jarduera Araudia, Tutoretza-jarduerako plana eta Bizikidetzaren eta Jazarpena protokola.

Antolakuntza eta Jarduera Araudian, dagokien atalean, elkarbizitza-arauak, neurri zuzentzaileak etab. aipatzen dira, zeinak plan honetan jasotako printzipio eta jarraibideekin bat etorriko diren.

Tutoretzako Ekintza Plana eta bertan jasotzen diren helburuak estuki loturik daude Elkarbizitza Plan honekin.

Ikastetxearen Curriculum Proiektua, metodologia /aniztasunaren arreta /... atalean bat dator plan honetan definitutako elkarbizitza-ereduarekin.

Elkarbizitza-plan honek gure ikastetxeko elkarbizitzaren diseinu bat izan nahi du, eta organo eskudunek adostutako proiektu eta planekin bat datorren garapen- eta kudeaketa-bideak ezarri eta sistematizatzen ditu.

2. Ikastetxearen ezaugarriak. Testuingurua soziolinguistikoa

Zaraobe, Amurrión kokatutako zentro integrala da, DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa ematen dira. Bizikidetzaren garrantzia ikastetxeko ikuspegian islatzen da. Zaraobe institutuak, elkarbizitza zibiko eta eskola komunitatearen ongizateak, eskualdean hezkuntza euskaldun erreferentea eta inguruarekin arduratsua izan nahi du.

Zentroak hainbat urtetako ibilbidea du hezkidetzan lanean eta oinarri gisa balio izango digun bizikidetasun plana dauka eta eguneratua, zehaztua eta gehitua izango da. Azken urteetan, hezkuntza komunitateak, bizikidetzaren hobetzea behar-beharrezkoa dela sentitzen du. Helburuak hauek dira: errespetuzko erlazio positiboak sustatzea, geletako arauak elkarrekin adostea, hezkuntza

komunitatearen aldetik gai honetan parte hartzea eta inplikazio handiagoa lortzea, berdinen arteko tratatu txarrerako zero tolerantzia ...

Helburu hauen lorpenerako sentsibilizaziotik hasiko gara (kontziente izan behar dugu, harreman egokien garrantziaz) eta diagnostikoa (zeintzuk diren arazo nagusiak, puntu beltzak, hobetu beharrekoak, etab.)

Bizikidetasuneko behatokiaren sorrera ezinbestekoa izango da helburuen lorpenerako. Bertan, gurasoak, ikasleak, irakasleak, orientatzailea, zuzendaritzako kideak eta jantoki eta garraioko arduradunak egongo dira. Ikasleen presentzia oso garrantzitsua dela uste dugu, alderdi inplikatuak delako eta behatokian parte aktiboa izan behar baitute.

. Ingurune sozial, ekonomiko, kultural eta lanekoari buruz. Ikastetxean duen eragina

Ikasle kopurua: 927; DBH Mailan 439 (20 talde), Batxilergo Mailan 176 (8 talde) eta Lanbide Heziketan 312.

DBHko eta Batxilergoko lehen mailako ikasleen jatorria: bi multzo handi nabarmen daitezke, gehienak Amurriotik datozenak eta bestetik, inguruko herrialdeetatik datoz, Audio, Arzeniega, Resalditza, Luiaondo, Urduña, ...

Zenbait ikasle hainbat ikastetxetatik etortzen dira: pribatu zein publikoetatik. Halako diasporaren ondorioetako bat da ikasleek ahaleginak egin behar dituztela elkar ezagutzeko eta harreman berriak sortzeko. Hori modu positiboan baloratzen dugu eta ikasle gehienek ere hala baloratzen dute ikasketak amaitu ondoren. Ikasleen heldutasunerantz beste etapa bat, beste pausu bat besterik ez dena. Orain arte betiko ikaskideekin baino egon ez denak talde bakoitzean ikasle ezezagun pila bat topatuko du eta beraien artean harreman berriak sortu beharko dituzte. Zer esanik ez, irakasle guztiak ere berriak izango dira, eta ikastetxea bera ere bai.

Harreman berrien beharra sentitzen dutenek asetzeko aukera izango dute. Jatorrizko ikastetxean harreman eskasak izan dituzten ikasleek, agian, beste aukera bat izango dute harreman berriak lotzeko, beste pertsona batzuk ezagutzeko eta euren nortasuna hobeto garatzeko.

Ikastetxea, bere funtzionamendua eta arau batzuk berriak direnez denek pasatu beharko dute egokitzealdi bat. Harreraren ardura, batez ere, tutoreen esku geratzen da. Gero poliki-poliki irakasle guztiak lagunduko dute egokitze prozesu horretan.

b. Familien maila sozioekonomikoa

Ez da erraza ikasleen jatorria hain anitza denean baina badakigu ikasle gehienak Amurrion bizi direla. Bi adierazle hartuko ditugu kontuan.

1-Errentaren aitortpena. Orokorrean maila ertaineko familiak dira seme-alabak institutura bidaltzen dituztenak.

2-Eskatutako beken kopurua: denetara 404 ikasle inguru kontuan hartzeko moduko datua baita. Eraitza akademikoez gain familiaren egoera sozio-ekonomikoa ere kontuan hartzen da beka onartzerakoan.

Sakeleko telefonoak, mp3. ipod... eta halako tresneria oso zabalduta dago gure ikasleen artean. Horrek zer adierazten du? Maila sozioekonomikoaren adierazle fidagarriak al dira? Zaila da hori interpretatzea. Ikastetxearen funtzionamenduaren ikuspuntutik horrek dakar tresneri guztia erabiltzeko debekua eskola orduetan eta (helburu pedagogikoagatik ez bada) , beraz, araua jakin arazteko beharra –guraso zein seme-alabei- eta baita betetzeko beharra ere.

c. Familien maila kulturala

Familien batz besteko maila soziokulturala ertaina edo altua da eta hori ikasleen motibazioan eta jarraipenean ere islatzen da. Gurasoak orokorrean oso arduratuta egoten dira seme-alaben ikasketekin eta gehienak prest egoten dira tutore zein irakasleekin edozein momentutan hitz egiteko, arazoak egon ala ez.

Ardura horren beste bi adierazle izan daitezke:

a. Ate-irekiak egunetan datorren gurasoen kopuru handia. Apirilean edo maiatzean izaten dira, bi arratsalde, eta guraso gehienak etortzen dira. Horretaz gain, beste ikastetxe batzuetara joaten da aurre-matrikula garaian gure ikastetxearen berri ematera eta partaidetza handia izaten da.

b. Irailean tutoreekin egiten den bilera orokorra ikastetxearen dokumentazioa eta funtzionamenduari buruzko azalpenak jasotzeko. Gurasoen asistentzia %80-%90 artekoa izaten da. Beraz, gurasoen interesa eta jarraipena oso handiak dira.

Gurasoen lanbideei buruz denetik dugula esan genezake. Aniztasun horrek aberastu egiten du ikastetxearen jardura eta ikasleen ikasketa prozesua, oso maila kulturala ezberdinetako pertsonak elkartzen baitira eta partekatzen baitute ikastetxea, zentzu guztietan.

Erronka ere bada guraso, ikasle zein irakasleentzat balizko diskriminazioei aurre egitea eta guztion artean berdintasun baloreak eta ekitate baloreak lantzea eta garatzea.

d. Testuinguru soziolinguistikoa

Euskararen egoera Amurrion

Euskararen egoera aldatu da Araban azken urtetan, baina oraindik urratsa handiak eman behar dira normaltasun egoerara heltzeko. Lehen hizkuntza lurraldeka. EAE, 2006 (%) Iturria: EUSTAT Lehen hizkuntza pertsonaren bizitza osorako ezaugarria da. Hortaz, denboran zehar egindako neurketetan oso gutxi aldatzen den aldagaia da. EAEko biztanleen %19,3ren lehen hizkuntza euskara da, eta %4,2rena euskara eta erdara. Gainerako biztanleek, hau da, EAEko lau biztanletik hiruk (%76,5ek) erdara dute lehen hizkuntza. Lurraldeen arabera aztertuz gero, ikus daiteke aldeak handiak direla. Horrela, %3,8 dira Araban lehen hizkuntza euskara dutenak, %13,0 Bizkaian eta %36,6 Gipuzkoan.

Amurrio Arabako Aiaraldean kokaturik dago. Herri nagusiak eta 9 herrixka osatzen dute udalerria. Amurriok 9 Administrazio batzorde ditu (Aloria, Artomañan, Batranbio, Delika, Larrinbe, Lekamaña, Lezama, Saratxo eta Tartanga).

Inguruko herrien osaketa antzekoa da eta lan jardueran, euskararen, gizarte-banaketa eta abarretan ez dago alderik. Izan ere, herri txikietako biztanleek bizitza Amurrioko erdigunean egiten dute (zerbitzuak eta industria).

Aiarran herri batzuek osatzen dute eskualdea: Aiara udalerria (24 herriz osatutako udala), Artziniega, Okondo, Audio eta Amurrio. Orohar, euskaldunen portzentaia oso antzekoa izan da betidanik hauetan guztietan inguruan geratzen den Bizkaiko herri bakarrean (Orduña-Urduña). Amurrioren kasuan eta Udaleko datuak eskuan, esan genezake euskaldunen kopurua gorantz joan dela azken hamabost urteotan. 1981ean %2,53 zen euskaldunen portzentaia eta hamabost urte geroago %19,61ra igo da.

Erabilerari dagokionez, aldiz, hainbat gauza esan dezakegu:

- Erabilera ezagupena baino txikiagoa da.
- Euskaldun berriak eta partzialki euskaldun berrien artean oso kopuru handia euskaldun pasiboak dira.
- Euskararen ezagupena ez da etxeko erabileran islatzen. Etxean gaztelania da nagusi.
- Euskara sustatzeko ekitaldi kulturak egin arren, kalean ez da oraindik ezagupenaren neurri berean ikusten.

Hala ere, 90eko hamarkadan euskararekiko jarrera aldatu zen batez ere Hego Euskal Herrian D eredia nagusitu zen eta horretan gurasoen erabakiak asko lagundu zuen. Jarrera horrek, herritarren gaitasun maila et erabilera hurbiltzen lagundu beharko luke, baina une honetan seme-alabek euskaraz ikasi arren, kalean bestelako egoera ikusten dugu egunero.

Hori guztien kontuan izanda, Amurrioko Udalean ere euskararen erabilerak aparteko garrantzia izan behar duela begi bistan dago. Ardura berezia izan behar du herritarren hizkuntza eskubideak bermatu ahal izateko.

Datozen hamar urteotako erronkarik nagusiena, belaunaldi berrietako euskaldunentzat euskara heldu-aroko erabilera-eremu berezi eta garrantzizkoetarako atsegin eta gaztelania bezain baliozko egitean datza. Horretarako, euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolatik harantzago eraman eta beste erabilera-eremu berezi eta garrantzizkoetara zabaldu behar da. Zaraobe BHI esfortzu handia egiten ari da prozesu honek aurrera egin dezan, eskolan ikasi duen euskaldun berriari dituen hizkuntza ezagupenak sendotzen, euskal kulturaren aberastasunaz jabetzen eta bere harreman-sare euskalduna zabaltzen lagundu behar zaio.

Etxebarriaur, 8

01470 Amurrio (Araba)

tel. 945393000

fax. 945393682

zaraobe@zaraobe.net

www.zaraobe.hezkuntza.net

Eusko Jaurlaritzako asmo nagusietarako bat Enpresetan euskararen erabilera areagotzea da hizkuntza-politika antolatu helburu horiek kontuan: merkataritza-ganbarak, enpresariak eta enpresari-elkarteak, elkargoak, sindikatuak, eta abar, hizkuntza politika horretako partaide bihurtzea; lantokietan euskararen aldeko proiektuak ezartzeko markoa definitzea eta giza baliabideak nahiz ekonomikoak bideratzea; baina, errealitateak esaten digu Amurrioko enpresa handietan euskararen erabilera oso eskasa dela eta eremu familiarrean baino ez da burutzen.

Hala ere, bititza-antolaketan eta egituretan aisialdiak gero eta leku handiagoa du eta hizkuntzaren normalkuntza-bidean duen eragina areagotu egin da, beraz; azken urteotan, euskarazko eskaintza nabarmen hazi baita.

3. Elkarbizitza Plana egiteko jarraitutako prozesuaren deskribapena

Gure Elkarbizitza Plana egiteko jarraitzen dugun prozesua honako hau da:

1. Sentsibilizazio-fasea. Ikasturteko lehen hilabetean ikasleekin tutoretza-saiotan aztertzen da gaia. Irakasleekin familiekin ikasturteko hasierako bileran analizatzen da gaia eta irakasleak ez diren langileekin. Hezkuntza-komunitateko eragile guztiak sentsibilizatzea eta kontzientziaztea.

- BAT kanpaina
 - Ikasleei: Klase guztietatik pasatu BAT zer den azaltzen eta hauekin kontaktatzeko bideak argitu.
 - Irakasleei: Ikasturte hasierako klaustro batean BAT taldearen zeregina azaldu eta bizikidetzaren plana zein BAT taldekideak aurkeztu.
 - Familiei: OOG-an BAT taldearen zeregina azaldu eta bizikidetzaren plana zein BAT taldekideak aurkeztu.
- Institutuko espazio desberdinetan kartelak ipini.
- Bizikidetzaren aldeko formakuntza saioak aurrera eramatea.

2. Diagnosi-fasea. Ikasturte hasieran talde bakoitzari galdeketa bat ematen zaio, Elkarbizitzaren azterketa sakona egin dezaten; zer gertatzen den, zer hobetu behar dugun,...

3. Helburuen zehaztapena eta jardueren plangintza. Elkarbizitza –eredua finkatzeko, plan honen oinarri diren printzipioak antolatzeko, helburuak, ... tutoretza-saioetan aztertzen da.

Galdeketa-erantzak aztertu ondoren, Elkarbizitza Planeko helburu orokorrak zehaztu eta horretarako beharrezko ekintzak eta estrategiak diseinatu eta martxan jarri. Guzti hau aurrera eramateko hezkuntza komunitatearen inplikazioa sustatuko da arduradunek zuzenduta. Eragile guztiei: familiak, irakasleak, ikasleak eta langile ez irakasleei zuzendutako galdetegi baten bitartez.

4. Zabalkundea. Hezkuntza-komunitate osoari ematen zaio planaren berri eta proposaturiko helburuak lor daitezzen.

Elkarbizitza Planeko helburu orokorrak aukeratu eta lehenesteko, ondoren gauzatu beharreko ekintzak, haien epekatzea, zehaztapenak, bakoitzaren arduradunak etab. planifikatzeko.

Prozesuan zehar hainbat lantalde eratzten dira: a) Irakasle-taldea, tutoreek osatua. b) Ikasle-taldea, ordezkariak osatua, c) Guraso-taldeko ordezkariak osatua, d) Irakasleak ez diren langileak osatua, e) Zuzendaritza f) Orientatzailea

Lan-saioen dinamikaren ezaugarri nagusia testu baten, galdeketa baten edo inkesten bidez jasotako datuen estatistikei buruzko hausnarketa izan eta lantalde bakoitzarentzat berariazko prestakuntza-saioak antolatu.

Prozesu osoan zehar arrakasta gehien izaten duten jarduerak hauek izan dira:

- Hezkuntza-komunitatearen partaidetza handia, proposaturiko galdeketei erantzutean.
- Inkesten bidez jasotako datuei buruzko hausnarketa.
- Berariazko tutoretza-saioetan lortutako ikasleen sentsibilizazioa eta inplikazioa.
- Prestakuntza-saioak (Berritzeguneko hitzaldiak, Genero-ren gaineko hitzaldiak Aniztasun afektibo-sexuala Inmigranteekiko solasaldiak,...)

Lehentasunezko gaitzat hartu zirenak hauek dira:

- Gatazken hezkuntza-kudeaketa.
- Genero-berdintasuna eta aniztasun afektibo-sexualarekiko errespetua, elkarbizitza positiborako giltzarriak.
- Emozioen kudeaketa.

Elkarbizitza Plana aurkezten da OOGk oniritzia emateko.

Ezagutzera emateko honako jarduera hauek antolatu dira:

- Ikastetxeko webgunean jarri da.
- Ikastetxeko talde guztietan landuko da, tutoretza-saio batean.
- Ikasturte-hasierako bileran familiei aurkeztuko zaie.

- Ikastetxeko iragarki-tauletan dokumentuaren laburpen bat jarriko da.

Ikastetxeko bestelako dokumentuekin duen lotura

Bizikidetza Planak Ikastetxeko dokumentu hauen alderdiak garatzen ditu:

- Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuarenak:
 - Ikastetxeko bizikidetza-eredua zehazten du.
 - Hezkuntza-asmoak zehazten ditu, hautemandako beharren eta adostutako bizikidetza-ereduaren arabera.
 - Hezkuntza-komunitate osoak partaidetzarako eta konpromisorako zer bitarteko dituen zehazten du.
- Barne Erregimeneko Araudiarenak:
 - Ikastetxeko bizikidetzaren arauak eta kudeaketa zehazten ditu.
 - Bizikidetzan eragiten duten antolaketa-alderdiei buruzkoak ebazten ditu.
 - Bizikidetzan eragiten duten organoen funtzioak zehazten ditu.
 - Esparru honetako jarduera-protokoloak definitzen ditu.
- Ikastetxeko Curriculum Proiektuarenak:
 - Curriculumean bizikidetzarekin lotutako gaitasunek izango duten garapena diseinatzen du.
 - Ikastetxeko bizikidetza-ereduarekin bat datozen metodologia-aldaketak proposatzen ditu.
 - Alor bakoitzeko programazioetan Bizikidetza Planeko jardunbideak jasotzen direla bermatzen du.
- Plan Estrategikoarenak eta Urteko Planarenak, horietan zehazten baita Bizikidetza Planeko zer helburu garatuko diren.
- Tutoretzako Ekintza Plana (TEP) lehen mailako baliabidea da proposaturiko elkarbizitza-helburuak lortzeko ekintzen garapenerako.
- Formakuntza plana: Bizikidetzari dagokion formakuntza.

4. Bizikidetzaren definizioa

Elkarbizitza Planaren funtsezko ataletako bat bera osatzen duten sektore guztiak konprometitu eta bakoitzaren iritzia eta ikuspuntuak jaso behar ditu, irakasleak, ikasleak, familiak, zerbitzu eta administrazioako langileak edota ikastetxearekin harremana duten bestelako erakunde edo pertsonak.

Garrantzitsuena ez da definizio bakar bat lortzea, baizik eta eztabaidan eta definizioaren eraketan ahalik eta partaidetzarik handiena lortzea, eta bestearen iritzia ulertu eta onartuz, hainbat sentsibilitate eta ikuspuntu adostea.

Definizio batzuk:

1. definizioa:

“Ikastetxean, elkarbizitza ulertzen da hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko harremanek osaturiko sarea, non komunikazioa, sentimendua, balioa, jarrera, rola, estatusa eta boterearen prozesuak eratzen diren.” (R. Ortega, 1997).

2. definizioa:

“Hezkuntza-komunitateko kideen arteko elkarbizitza baketsua; alegia, haien arteko harreman positiboa, eta hezkuntza helburuak, ikasleen garapen integralaren aldeko giroan, behar bezala bete ahal izateko aukera ematen duena”. (Hezkuntza Ministerioak Eskola Elkarbizitza buruz).

3. definizioa:

Eskola-erakundean sortzen den harreman-giroa da. Esan dezakegu denbora/leku batean (eskola) ideia edota helburu batekin (heziketa eta ikasleen prestakuntza) garatzen den gizarte-harremanen sare bat dela, eta bertan parte hartzen duten eragileei (irakasleak, ikasleak, familiak, irakasleak ez diren langileak) dei egiten die lankidetzan aritzeko gai izan daitezen; hau da, batera lan egin dezaten eta elkarri lagun diezaioten kideen arteko harremanak eta loturak sortzen.

4. definizioa:

Elkarbizitza positiboa hezkuntza-komunitateko kide guztien partaidetza sustatzen duena da, gizarte- eta harreman-arauak adostuz, arazoak konpontzeko azterketa- gune eta uneak sortuz eta ikastetxeko proiektuaren parte sentituz.

5. definizioa:

Eskolako elkarbizitzak, gure ikastetxean, Hezkuntza Komunitateko kideen arteko harremanak arautzen ditu: ikasleak, irakasleak, familiak, zuzendaritza-taldea, irakasleak ez diren langileak,

Etxebarriaur, 8

01470 Amurrio (Araba)

tel. 945393000

fax. 945393682

zaraobe@zaraobe.net

www.zaraobe.hezkuntza.net

ikastetxean eragiten duten edo lankidetzan ari diren erakundeak...; eta proiektuan adierazten den bezala, ikasleen garapen integrala eta soziala lortzeko jarduerak elkarri jakinarazi eta koordinatzeko helburua du. Gure ikastetxeko elkarbizitza positiboak, oinarri hauek ditu: ikuspegi inklusiboa, onarpena, desberdintasunak errespetatzea, partaidetza, elkarrizketa, sozializazioa... eskola-giro positiboa lortu eta zaintzeko.

5. Ikastetxeko bizikidetzaren diagnostikoa

Elkarbizitza Plan batek ikastetxeko errealitatea izan behar du oinarri. Horretarako ezinbestekoa izango da irakasleek, ikasleek, familieek eta irakasleak ez diren langileak hausnarketa egin beharko dute dagoeneko dauden elkarbizitza-alderdi positiboak, hobetu daitezkeenak, edo gaizki funtzionatzen dutelako aldatu behar direnak.

Arazo motak:

- Ikaskideen arteko errespetu faltak.
- Irakasleekiko eta zentruko langileekiko errespetu faltak. Eguneko ordenaren barruan daudenak eta maila guztietan ematen direnak.
- Errespetu faltek dakarten geletan jarrera desegokiak. Eskolak ematea oztopatzen dutenak eta langileak diren ikasleak izorratzen dituztenak, gelako erritmoa apurtzen.
- Talde koesio eta dinamika falta. Ez dago dialogorik ikasleen artean. Esku artean dugun kontextu eta egoeretz hitz egiteko zailtasun handia.
- Teknologien erabilera desegokia eta honek dakarren isolamendu egoera.
- Materialak era desegokian erabiltzea eta xahutzea.
- Instalazio zahartuarekiko konexio faltagatik sortzen diren boikotak eta zapuzteak.

7

Gure institutuko elkarbizitzaren egoerari buruzko datuak jasotzeko prozesuan, zenbait inkesta burutuko dira, eta alderdi hauei buruzko iritziak jasoko dira:

- Ikastetxean bizi den elkarbizitza-giroa.
- Irakasleen eta ikasleen arteko harremana, ikasleen artekoa, irakasleen eta familien artekoa, irakasleak ez diren langileen eta familia edo ikasleen artekoa, irakasleen eta irakasleak ez diren langileen artekoa.
- Ikastetxean edo ikasgeletan jasotako arauari buruzko gogobetetze- edo desadostasun- maila eta betetze-mailari buruzko iritzia.
- Dagoeneko ezarri diren jarduerak (ikasgelako bilerak, Tutoretza Jarduerako Plana, zuzendaritza-taldearen, irakasleen, irakasleak ez direnen, ikasleen edota familien arteko komunikazio-kanalak, g-mail, norbanako tutoretzak, ...etab.).

Etxebarriaur, 8 01470 Amurrio (Araba) tel. 945393000 fax. 945393682
zaraobe@zaraobe.net www.zaraobe.hezkuntza.net

- Harreman-gatazka gehieneko gune edo uneak ematen dutenak (korredoreak, komunak, ...)
- Ikastetxean, arazoak sortzen dituzten ikasleekin erabili ohi diren neurri zuzentzaileak.
- Hezkuntza-komunitatearen iritzi guztiak aztertu ondoren, zein arlotan sakondu behar zen erabakitzen da, eta, horren ondorioz, ondorengo atalean ikus daitezkeen helburuak aurkezten dira.

Denboraldi batean hartutako neurri zuzentzaileen erregistro-azterketa oso lan lagungarria izan daiteke arazoak zein eratako egoeretan sortzen diren eta egoera horietan ematen den erantzunaren kalitatea eta eraginkortasuna ezagutzeko:

- Gertatutako jokabide desagokiak kopurua: jokabide horien maiztasuna eta banaketa kurtso, gune eta denboran.
- Gehien gertatzen diren elkarbizitzarako jokabide desagoki, aurkako edo kaltegarriak.
- Hartutako neurri zuzentzaileak, maiztasuna, egoera-mota, neurri- mota, elkarbizitza positiboarekin bat ez datozen jokabideak zuzentzeko izan duten eraginkortasuna.
- Neurri zuzentzaileak ezarri gabeko ikasleriaren ehunekoa.
- Neurri zuzentzaileen kopuru eta motaren, eta generoaren arteko harremana: neskak edo mutilak.
- Jokabide desagokiak pilatzen dituzten ikasleak. Ezaugarriak eta egoera pertsonal, testuinguruak eragindakoak eta akademikoak.

6. Helburu orokorrak

Elkarbizitza Plan honetan, ikastetxeko elkarbizitza-giroarekin loturiko IHPko helburuak jasotzen dira eta gure ikasleek beren garapen pertsonal eta sozialean lortzea nahi dugun balioak. Ondoren helburuen sailkapena aurkezten da, eragin esanguratsuena duten alderdiak kontuan izanik:

. Elkarbizitza-giroarekin loturiko helburuak

- Ikastetxean elkarbizitza positiboko giroa sortzea, non komunitateko kide guztiak parte direla sentituko duten.
- Ikastetxeko elkarbizitza-arauak denen artean eta adostasunez lantzea eta, behar denean, berrikustea hezkuntza-komunitatean harreman positiboak sustatze aldera.
- Elkarbizitza positiboarekin loturiko zenbait alderdiri buruzko eta hezkuntza- komunitateko estamentu guztiei zuzenduriko prestakuntza (kulturartekotasuna, aniztasun afektibo-sexuala, heziketa emozionala, gatazken kudeaketa, portaeraren hobekuntza...) proposatu eta plangintza egitea.
- Irakasle-taldearen harremanak hobetzea, partaidetza eta komunikazioko mekanismoak eta tresnak emanez, klaustrokideek areagotu dezaten ikastetxeko parte direlako sentimendua eta zeregin komunetan gehiago inplika daitezzen ...
- Gatazken tratamendu egokia eta haiek modu baketsuan konpontzen ikasteko estrategiak prestatu eta abiaraztea.

- Ongizate emozionala zaintzea ikasleen garapen pertsonal, sozial eta akademikorako, hau da, autoestimua, entzute aktiboa, asertibitatea, erresilientzia eta enpatia garatzea,

gaitasun guzti horiek integratuz.

- Ikasleen egoera sozio-emozionala eta akademikoa eta berdinen taldean gertatzen dena ezagutzea arrisku faktoreei erantzuteko eta ikasleen bizi unea seguruak eta atseginak sortzeko indarkeria baztertuz.
 - Gelak ingurune ezin hobea dira buru-osasuna sustatzeko, jokabide suizida prebenitzeko estrategiak ikasteko: arrisku-faktoreez jabetzea, ohiko alarma-seinaleak antzematen jakitea eta laguntza bilatzea.
- Modu adostuan, jokabide desegokien aurkako irizpideak eta jarduteko jarraibideak lantzea, ikasleen eskubide eta betebeharreri buruzko 201/2008 Dekretuaren arabera.
 - Hezkuntza-komunitateko estamentu guztien partaidetza sustatzea.

b. Inplikazioarekin eta partaidetzarekin loturiko helburuak

Gure ikastetxeko irakasleek lan-ibilbidea dute elkarbizitzaren arloan. Lan horren aitzindariak ikasketaburua eta ikastetxeko orientatzailea dira, eta Elkarbizitza Batzordea du oinarri.

Irakasleen partaidetza ziurtatuta dago Elkarbizitza Batzordea eta Behatokia batzordea, horiek ezartzen baitituzte gerora klaustroak eta OOGk onartuko dituzten elkarbizitza arloko oinarrizko jarraibideak.

Halere, ikasleen inplikazioa ez da oraindik modu sistematikoan garatu. Hori dela-eta, honako helburu hau proposatu beharra:

- Ikasgelako eta ikastetxeko elkarbizitzaren kudeaketan ikasleen inplikazioa sakontzea.

c. Hezkidetzak

- Ekintza diskriminatzailearik gertatzen ez den hezkidetzak-ikastetxea izatea.

d. Baloreak

- Ikastetxe bat izatea non tolerantzia, errespetua, elkartasuna eta lankidetzak balio partekatuen izango diren.

e. Kulturartekotasuna

- Partaide guztiek ikastetxean ordezkaturako kultura guztien balioa aitortzen duten komunitatea eratzea, ikastetxeari balio erantsia ematen dion ezaugarri modura hartuz.
- Arrazakeria / diskriminazioa / bazterketa gainditzea, azaltzen diren egoerak desitxuratuz, enpatia eta pertsona guztien eskubideen aitortzea sustatuz.

f. Ikaskuntza emozionala

- Beren mugak onartuko dituzten eta beren gatazkak eta frustrazioak kudeatzeko gai izango diren pertsonak prestatzea.

g. Curriculuma

- Curriculumeke arlo eta irakasgai guztietan elkarrekin bizitzen ikasteko gaitasunaren zenbait alderdi zeharka landu, balioetsi eta ebaluatzea lortzea.

7. Helburuen lorpena sustatzeko egiturak

1. Elkarbizitzaren Behatokia

Elkarbizitzaren Behatokia gure kontsulta-organoa da eta gure ikastetxeko elkarbizitza ezagutu, aztertu eta ebaluatzeko baliabidea dugu. Institutu-jarduera hobetu nahi dugu, elkarbizitzaren ebaluazioa eta diagnostikoaren bidez.

Organo horren eraketa eta presentzia xedatuta dago Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren 5.2. artikuluan.

Ikastetxeko Elkarbizitzaren Behatokiak helburu hauek izango ditu:

- a. Errespetuan eta elkarriketan oinarrituriko elkarbizitza sustatzea.
- b. Elkarbizitzari buruzko ikuspegi globala ezarri, eta prebentzio- jarduerak eta hobekuntza-neurriak proposatzea. Ikasleen arteko gatazkak. Liskarrak (zein leku eta unetan eta nolakoak), eskola- jazarpena (zenbat aldiz, sorburuak, tipologia, erabilitako bitartekoak...)
- c. Irakasleen eta ikasleen arteko gatazkak. Zenbat aldiz, zein taldetan, gatazka- mota. Erreklamazio akademikoko izaera badu, jatorria aztertu.
- d. Gurasoek parte hartzen duten gatazkak. Zenbat aldiz eta zein motatakoak.

Zuzendariak eta ikasketa buruak elkarbizitzaren aurkako portaera kaltegarrien aurrean hartutako neurri zuzentzaileen inguruko erabakirik egokienei buruzko proposamenak egingo dituzte. Funtzionamendua, antolaketa eta behatokiaren osaketa AJA-k jaso du.

Batzorde honetatik lan egingo da planteamendu zigortzailea gainditu eta, neurri prebentibo, aringarri eta zaharbertitzaileen bidez, elkarbizitza positiboagoa lortzeko.

Halaber, honako hau egin nahi dugu:

- Arrisku-faktoreak identifikatu eta ekintza eraginkorrak proposatu (noiz, non. Adibidez: korredoretan, atsedendietan, ...)
- Gure Elkarbizitza Plana aztertu eta hobetzeko proposamenak aurkeztu.
- Denon partaidetza aktiboa sustatu, batez ere ikasleena (adibidez: elkarbizitza hobetzeko proposamenak lantzeko).
- Elkarbizitza positiboa bultzatu: hiru hilabetez behin festa bat antolatu (kontzertuak, Euskal dantzak, ...), ingurune ez-formal batean irakasleen eta ikasleen arteko harremana sustatzeko.
- Konponketa-neurriak lehenetsi.
- Ikastetxeko elkarbizitza-araudia berrikusi.
- Gerta litezkeen indarkeria eta eskola-jazarpen kasuak antzemateko ikasle-irakasle talde bat sortu (Behatokia). Indarkeria eta eskola-jazarpeneko balizko kasuak antzematea: Berdinen arteko indarkeria- eta txarren balizko kasuak hautematea (triptikoak, galdetegiak, soziogramak, testak... zabaltzea) eta adostutako neurriak berehala gauzatzeko direla bermatzea.
- Elkar zaintzeko kultura garatu, izan ere, nor bere burua eta besteak zaintzeak, bien aberastasuna dakar. Jarduerak sustatu eta antolatzea. Inguruarekin harremanak sortzea. Inguruko erakunde eta entitateekin batera lan egitea elkarbizitzari laguntzeko.

Arrakasta akademikoa ez ezik, ikastetxeko giroa eta eskola-komunitateko kide guztien arrakasta pertsonala ere hobetu nahi dugu. Pertsona guztiak aintzat hartuak, entzunak eta erabakiak hartzean partaide izan daitezkeen nahi dugu. Beraz,

- Estamentu guztien arteko bizikidetzan eragin, hobetu ahal den neurrian eta garatu.
- Era guztietako bazterkerien kontra prebentzio lana egin.
- Arazoak eta konfliktoak aurreikusten ahaleginak egin
- Protokoloak finkatu ondoren erabili. Konfliktoak eta arazoak sortzen direnean bideratzen saiatu finkatutako protokoloen bidez.

Eta pertsona hauek osatzen dute:

• IKASTETXEAN

- Orientatzailea
- Zuzendaritza taldea
- Irakasleria (garraio eta jantokiko arduraduna)
- Ikasleria
- Familiak edota ikasleen tutoreak
- BAT TALDEA: talde dinamizatzailea (jazarpen egoerak bideratzeko): Zuzendaria, zuzendariordea, ikasketa burua, orientatzaile bi eta irakasle bi.

IKASTETXETIK KANPO

- Ikastetxeko ikuskaria eta Ikuskaritza orokorrean.
- Berritzegune.

Eta guztien artean eginkizunak eta jarduerak garatu eta bultzatu behar izango dituzte:

IKASLEAK

A- ELKARBIZITZA BIDERATU: irakasle, tutore, orientatzaile, zuzendaritza taldea eta ikasleen arteko lana izango da.

- Hasierako harrera: dokumentazioa –kit ikaslea- ikastetxearen datuak, ordutegiak, AJAren laburpena...tutorearen bidez
- Aurre ebaluazioa, irailaren amaieran: irakasle taldea, tutorea eta zuzendaritzaren kide baten bitartez. Helburua: taldearen funtzionamendua aztertu eta hobetzeko proposamenak egin.
- 1. ebaluazioaren ondoren inkesta norberari buruz, ikasgaiei buruz, irakasleen hizkuntza mailari buruz...
- Eguneroko behaketa: irakasleria eta tutorea

B- ARAZOAK, KONFLIKTOAK BIDERATU: irakasle, tutore, ikasle, guraso, eta ikasketa burutzaren bitartez. Neurri zuzentzaileak aplikatzeko orientatzailearen aholkularitza jaso daiteke.

- Asistentzia kontrola (dokumentua + AJA)
- Kanporaketak (dokumentua + AJA)
- Telefonoaren erabilera desegokia (dokumentua + AJA)
- Istiluak irakasleekin edota ikaskideekin (dokumentua + AJA)
- Ikaskideen arteko tratu txarrak (dokumentua- Hezkuntza Sailaren protokoloa).

IRAKASLEAK

Talde lanean jardungo dute gainontzeko irakasle, tutore, orientatzailea eta zuzendaritzarekin. Beraien ardurak izango dira besteak beste:

- Ikasleen aurkezpena
- Aurre ebaluazioetan parte hartu.
- Asistentzia kontrola
- Eguneroko behaketa: portaera desegokiak eta kaltegarriak detektatzeko
- Ebaluazioetan parte hartu eta bere iritzia eman, ikasleei buruz zein taldearen funtzionamenduari buruz
- Programazioak, ebaluazio irizpideak...argi azaldu eta errespetatu
- Orokorrean ikasleen eskubide eta betebeharren dekretuan agertzen diren irizpideak errespetatu.

Harremanetan egongo dira gurasoekin eta gauza puntualak –kanporaketak, portaera desegokia ikasgelan, kopiatzea...- berehala jakinarazi die gurasoei edo tutoreei telefonoz edo idatziz. Beharrezkotzat jotzen dutenean bilerak egingo dituzte ikasle zein guraso/tutoreekin.

Etxebarriaur, 8

01470 Amurrio (Araba)

tel. 945393000

fax. 945393682

zaraobe@zaraobe.net

www.zaraobe.hezkuntza.net

Arazoak gainontzeko lankideekin sortzen direnean –irakasle, garbitzaile, atezain...-Hezkuntza Sailaren protokoloa erabiliko da, zuzendaritzaren bitartez, arazoa neurtzeko, sailkatzeko eta proposamenak egiteko.

TUTOREAK

Talde lanean jardungo dute gainontzeko irakasle, orientatzaile eta zuzendaritzarekin. Beraien ardurak izango dira besteak beste:

- Ikasleen aurkezpena
- Ikastetxeko funtzionamendua azaldu
- AJAren laburpena azaldu
- Delegatuen aukeraketa
- Falten kontrola eta justifikazioa
- Atzerapenen jarraipena
- Kanporaketen jarraipena
- Bilerak egin orientatzailearekin
- Kasu berezien jarraipena: tratamenduan daudenak, arreta berezia behar dutenak...

ORIENTATZAILEA

Orientazio planaren bitartez eragingo du ikasleriaren formazioan eta ikastetxearen bizikidetzan. Gainera, bitartekaritza lana egingo du irakasleria, tutoreak eta zuzendaritzaren artean. Behar denetan baita ikasleen edota familien artekoa ere.

Bere ardurak izango dira besteak beste:

- Bilerak egin tutoreekin eta zuzendaritzarekin
- Egiten diren inkesten helburuak azaldu eta emaitzak aztertu
- Jazarpen, bazterketa eta tratu txarren kasuetan protokoloak martxan ipintzen lagundu eta jarraipena egin. Irteerak proposatu.
- Diziplina kasuetan neurri zuzentzaileak direla eta, aholkularitza lanak egin.
- Berritzegunearen bitartez kasu bereziei buruzko informazioa jaso, aholkularitza eskatu, zuzendaritzari informazioa jakinarazi eta hala komeni bada tutoreari eta irakasleriari ere bai.
- Ikastetxearen arautegia errespetatu nahi ez duten ikasleei, batxilergoa utzi nahi dutenei, beste zerbait ikasi nahi dutenei...orientazioa dagozkion aholkuak eman.

Kasu berezietan bere bitartekaritza erabiliko da eta aholkulari lanak beteko ditu: porrota ikasketetan, drogen kontsumoa, arazo psikikoak...dagokien profesionalarengana bideratzeko.

ZUZENDARITZA TALDEA

Elkarbizitza lanaren koordinazioa egingo du. Zuzendaritzako pertsona bat egongo da egiten diren bileretan: tutore, orientatzaile, familia/ordezkarri, ikasleen ordezkarri, ikasle, ikuskari...

Prebentzio lanetan:

- Hasierako harrera: dokumentazioa –kit ikaslea- ikastetxearen datuak, ordutegiak, AJAren laburpena...tutorearen bidez banatuko da. Zuzendaritzak eta orientatzaileak prestatuko dituzte txosten horiek
- Aurre ebaluazioa, urriaren hasieran: irakasle taldea, tutorea eta zuzendaritzaren kide baten bitartez. Helburua: taldearen funtzionamendua aztertu eta hobetzeko proposamenak egin. (dokumentua). Zuzendaritzak eta orientatzaileak emaitzak aztertuko dituzte. Hartu beharreko neurriak tutorea eta gainontzeko irakasleekin adostuko da.
- 1. Ebaluazioaren ondoren inkesta bat egingo da ikasleen artean: inkesta norberari buruz, ikasgaiei buruz, irakasleen hizkuntza mailari buruz...(dokumentua). Zuzendaritzak eta orientatzaileak emaitzak aztertuko dituzte
- Eguneroko behaketa: irakasleria eta tutoreen informazioa jasoko du. Horretarako zuzendaritza beti irekita egongo da eta astean behin tutoreen bilera bat egingo da orientatzaile eta ikasketa buruarekin.
- AJAren aldaketak egingo dira ikasleek, irakasleek, gurasoek edota zuzendaritzak hala eskatuta. Aldaketak Eskola Kontseiluan onartuko dira legedia errespetatzen.

Esku hartzea arazoetan, konfliktoetan:

Beharrezkoa denean zuzendaritzak esku hartuko du. Txostenak, elkarriketak, neurri zuzentzaileak proposatu eta aplikatu, betetzen ote diren kontrolatu, espedienteak...Horretarako erabiliko ditu:

- Ikasleen eskubide eta betebeharren dekretua
- Ikastetxeko AJA
- Ikuskaritzak garatu dituen protokoloak: ikasleen zein lankideen arteko jazarpena – ikastetxean edota sarean-
- Eskolaz kanpo dagoen legedia.

Eguneroko jarraipena egiteko erabiliko diren beste dokumentu batzuk:

- Asistentzia kontrola (dokumentua + AJA)
- Kanporaketak (dokumentua + AJA)
- Telefonoaren erabilera desagokia (dokumentua + AJA)
- Istiluak irakasleekin edota ikaskideekin (dokumentua + AJA)
- Ikaskideen arteko tratatu txarrak (dokumentua- Hezkuntza Sailaren protokoloa)

Espedienteen kasuan ikuskaritzaren esku hartzea aztertuko du zuzendaritzak.

BAT TALDEA

Bizikasi ekimenean, lehendabiziko hezkuntzazko esku-hartzean, ikastetxeetan probentziotik prebentziorako bideari ekiteko bitartekoak dira nagusitzen diren elementuak. Jazarpena ekiditeko erarik eraginkorrena prebentzioa dela jakinik, ezinbestekoa da ikastetxeen eskuetan jartzea bizikidetzaren positiboa eraikitzen laguntzen duten egiturak, antolatze neurriak, metodologia-hautuak, curriculum-garapenak, estrategiak eta tresnak. Horixe adierazi nahi da probentzioarekin.

Esaterako, antolaketari dagokionez, aipatzekoak dira, besteak beste, haien arteko harremanen kalitatea sustatzeko bitartekoak ezartzea, eta haiek duten ongizate emozionalaren maila ezagutzeko komunikazio-kanal seguruak izatea. Metodologiaren aldetik, lankidetzan

oinarritutako eskaintza metodologikoen aldeko hautua egitea. Curriculumaren eremuan, egiteko nagusia izango da bizikidetza eraikitzearen alde eta esklusioari eta jazarpenari aurka egiteko jarduerak garatzea, eta estrategiei erreparatuz balizko jazarpen-egoerak detektatzeko eta ebaluatzeko tresnak ezagutzea eta esku-hartzea era egokian kudeatzea.

Egiturei dagokienez, Bizikasi ekimenak ikastetxe bakoitzean BAT (Bizikidetzaren aldeko Taldea) egitura sortzea ebatzen du, gutxienez 5 kidez osatutakoa: ikastetxeko zuzendaria edo zuzendariordea, ikasketaburua, aholkulari/orientatzailea eta hezkidetza arduraduna eta ongizate eta babeserako figura (OBF) den irakaslea. Talde horrek koordinatuko du jazarpen-kasuak ebazteko prozesua, eta beronek gidatuko ditu, Bizikidetza Behatokian jasotako iradokizunak aintzat hartuta, ikastetxean bizikidetza positiboaren esparruan garatu beharreko ekintzak.

ESKOLA KONTSEILUA

AJAren eguneratzea Eskola Kontseiluan onartuko da. Aldaketak egiteko proposamenak delegatuen bileran –ikasleen ordezkariak-, Mintegi Buruen Bileran, klaustroan, gurasoen elkartearen... aztertuko dira eta azkenean Eskola Kontseiluan erabakiko dira horretarako baita Ordezkaritza Organo Gorena.

.

FAMILIAK

Familien parte hartzea 2 mailatan aurreikusten da:

1-Orokorra: gurasoen elkartea eta Eskola Kontseiluaren bitartez. Proposamenak gurasoen elkartearen bitartez luza daitezke eta erabakiak Eskola Kontseiluan hartu.

2-Partikularra: bizikidetzaren kontrako portaerak daudenean gertatutakoa familiei jakinaraziko zaie eta hartu behar diren neurri zuzentzaileak beraiekin adostuko dira AJAn eta Ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko dekretuan finkatzen diren prozeduren arabera.

2. Beste egitura batzuk

HEZKIDETZA

Ikastetxean hainbat talde sortu dira elkarbizitzaren Behatokiak proposaturiko erabakiak garatzeko, gure ikastetxea genero-berdintasuna bermatzen duen gune bihurtuko duten ekintzei buruzko erabakiak alegia.

Gure xedeak:

1. Genero ikuspegitik, koherentzia eman nahi zaie gure ikastetxeak martxan dituen hainbat ekimen, asmo eta programari.

2. Gure Elkarbizitza Planean jasoko ditugu ikastetxeko Hezkidetza eta Genero Indarkeriaren prebentziorako Planaren garapenarekin zerikusia duten hobekuntza-ildoak eta ekintzak.
3. Hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioaren kontzeptua ezagutu eta jakitera eman hezkuntza-komunitate osoari.
4. Ikastetxeko kudeaketako agiri guztietan genero-ikuspegia ager dadin zaintzea.

ONGIZATE EMOZIONALA

Hauek dira ongizate eta babeserako figuraren (OBF) betebeharrak:

- Ongizate emozionaleko ardurak
- Komunikatzeko kanalak irekitzeko ongizateemozionala@iescruces.com korreoa ireki. Horrez gain, postontzi fisikoa prestatu mezu anonimoak jasotzeko.
- Korreo digitalaren zein postontziaren berrikuspenaren ardura.
- Gatazken aurrean erantzun estandarrak garatzeko ardura.
- “Klaseko giroaren” ardura ikasgela konfliktiboen aurrean
- Formakuntza planak sustatu irakasleentzat.
- BAT kanpainaren diseinua.
- BAT taldeko koordinazioa. Bilera baino lehen gai ordena bidali eta bileraren akta idatzi.
- Ongizate emozionaleko Proiektuen berrikuspena.
- LasaiGUNearen espaziaren hobekuntza.

8. Jarduteko irizpideak eta ildo orokorrak

8.1. Jarduteko irizpide nagusiak

Sistematikoki aztertuko dugu ea irakatsi eta ikasteko prozesuaren plangintzak, metodologiak, ebaluazio-prozesuek, irakasleen arteko koordinazioak eta familiekiko koordinazioak sustatu eta laguntzen dieten gure ikasleei arrakasta lortzen, autoestimua eta ikasteko atsegina areagotu eta frustrazioa eta porrotaren sentazioa saihestuz.

Garrantzi berezia ematen diogu gatazkei aurrea hartzeari. Gatazka ez da zerbait negatiboa eta ekidin beharrekotzat hartzen. Elkarbizitzak berezkoa du gatazka; beraz, irakasleriarri eta eskola-

komunitateko kideei baliabideak ematen dizkiegu gatazkak modu eraikitzailean konpontzeko. Tutoretza-jarduerako planaren diseinu eta garapenean honako baliabide hauek aipatuko dira: elkar ezagutzeko baliabideak, elkarrenganako estimua lantzeko, ekimenak irmoki entzun eta proposatzeko, elkarlanerako, erabaki bateratuak hartzeko, gatazkei modu bateratuan aurre egiteko.

Beraz, ezinbestekotzat jotzen dugu hezkuntza-arloan elkarbizitza positiboa sustatzeko baliabideak izatea: hezkuntza-komunitatearen sentsibilizazioa eta kontzientziazioa, curriculumean harremanak areagotzeko edukiak sartzea, elkarrekiko errespetua, elkartasuna, sentimenduak, gizarte-trebetasunak...

Horrekin batera, interes berezia jarri behar da gatazken konponketan, biktimaren autoestimua indartuz, arazoan parte hartu duten gainerakoak ahaztu gabe: jazarleak eta ikusleak, eta partaide guztiei ezarri beharreko neurri hezitzaileak azpimarratuz. Ildo horretatik, bereziki garrantzitsuak dira gure ikastetxearentzat: ikasle laguntzaileak, Pikas metodoa...

Elkarbizitza- lanaren hasieran, komenigarria da ikastetxeko irakasle guztiek oinarritzko erabaki eta konpromiso batzuk adostea, bereziki aipagarria da familien inplikazioa sustatzeak duen garrantzia. Beraz, Hezkuntza-komunitate osoak kontuan izango ditu jarduteko irizpide orokor hauek:

- Elkarbizitza positiboren sustapena esparru guztietan eta curriculumeko arlo eta ikasgai guztietan egingo da.
- Elkarbizitzaren araudiari buruzko erabakiak hartzeko partaidetza lehenetsi behar da.
- Arauak eta erabakiak denon eskubideen eta ongizatearen bermea sustatzen duten elementuak izango dira, eta hala ulertu eta partekatuko ditu komunitate osoak.
- Hezkuntza komunitateko pertsona heldu guztiek, egoera gatazkatsuren bat ezagutzen badute, esku hartu edota arduradunei jakinaraziko diete.
- Gatazkak konpontzeko lehenetsuneko prozedurak kontziliazioa eta konponketa izango dira.
- Gatazkak kudeatzeko beti aztertu behar dira lehenik arrazoiak, eta, hala badagokio, zigorraren eragin berrezitzailea. Hartzen diren neurriak beti izan behar dute helburu berrezitzailea.
- Jazarpen-kasuen aurrean inolako tolerantziarik ez.
- Pertsonen arteko adimenaren, trebetasun sozial eta emozionalen, eta balio etikoen garapena ikastetxeko profesionalen ardura izango da, familien lankidetzarekin.
- Adiskidetzea eta kalteak konpontzea izango dira lehenetsuneko prozedurak.

8.2. Jarduteko ildo orokorrak

Irizpideak zehaztu ondoren, jarduera-ildo orokor batzuk edo alderdiak finkatu ahal dira. Horiek aldatzen joan daitezke denboran zehar, eta planean egiten diren aldaketetan islatuko dira. Dena den, kontuan izan behar da 201/2008 Dekretuaren 3. atala, ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzkoa, non elkarbizitzarako jarrera desegokiak, aurkakoak edo oso kaltegarriak zuzentzeko hezkuntza-neurriak biltzen diren.

Ondoren, jarduera-ildo orokorreko zenbait proposamen bost multzotan sailkatuta azaltzen dira:

1. multzoa. Estamentuen arteko zein barruko elkarbizitza sustatzeko ekintzak.

Eskola-komunitate osoko kideen arteko harreman positiboetan oinarrituriko elkarbizitza-giroa sustatuko dute, baita bera lortzeko guztien inplikazioa, partaidetza eta konpromisoa ere. Araudiaren kudeaketa egokia erraztuko dute; bere eskubideak erabiltzen eta betebeharrak betetzen ikastera bideratutako estrategiak eta prozedurak bultzatuko dituzte, ikasleek, eskubide osoko herritar modura gizarteratzeko beharrezko gaitasunak eskuratuz. Halaber zenbait balio sustatuko dituzte, hala nola, tolerantzia, berdintasuna, errespetua, elkartasuna edo enpatia.

a) Elkarbizitza positiborako, eskola-komunitate osoaren sentsibilizazioa eta inplikazioa erraztera bideratutako ekintzak:

- Elkarbizitza Planaren prestaketa eta jarraipenean parte-hartzea eta erabakiak modu demokratikoan hartu ahal izatea bultzatzen duten eta hezkuntza-komunitateak bere gain har ditzakeen ekintzak:

- Komunikazio-bide eraginkorrak.
- Ikastetxeko partaide direlako sentimendua handitzeko protokoloak: harrera eta agurra, etab.
- Arauak prestatzen, gatazkak modu egokian kudeatzen
- Familien parte-hartzea sustatuko duten ekintzak.
- Aldizkako sentsibilizazio-ekintzak, eta ikasleen arteko harremanak sustatzeko.

b) Ikastetxean elkarbizitza-giro ona lortzera bideratutako ekintzak:

- Irakasleen, ikasle eta ikasleen, irakasle eta familien arteko harremanak hobetzeko ekintzak.: lehiaketak, egun bereziak ospatzea, ikasturte amaierako “Gala”, Ikasleen kontzertuak, ...

c) Elkarbizitza positiboari buruzko hezkuntza-komunitate osoaren kultura.

d) Banakako eta taldekako tutoretza-ekintzak: elkarbizitza, egiturazko indarkeria eta gizarte-berdintasunaren eragileen ezagutza, bullying eta cyberbullying-a, eta gizarte-berdintasunarekin loturiko gaiak jorratzea.

e) Bakea eta elkarbizitza baketsurako hezkuntza eta balioetan prestatzeko ekintzak.

f) Adimen emozionala garatzeko ekintzak, gizarte-trebetasunak, emozioak, osasun psikologikoa enpatia, irizpide morala etab. heziz.

g) Talde-lana sustatzen duten eta aniztasuna kontuan duten curriculum-eta metodologiazko ekintzak.

2. multzoa. Gatazken hezkuntza-kudeaketa, kontziliazioa eta konponketa errazteko eta elkarbizitza-konpromisoak sortzeko ekintzak.

Etxebarriaur, 8

01470 Amurrio (Araba)

tel. 945393000

fax. 945393682

zaraobe@zaraobe.net

www.zaraobe.hezkuntza.net

. Gatazkak etikoki kudeatzea helburu duten ekintzak:

- Gatazkak beste bati pasatu beharrean, lehenbailehen heltzea.
- Arau argi, positibo eta koherenteak.
- Gatazkak sor ditzaketen egoeretan arreta berezia: korredoreak, eskola orduen arteko aldaketak, komunak, ...
- Ezagutu eta erabiltzea, gatazkak kudeatzeko lagungarriak diren hainbat baliabide: negoziazioa, bitartekaritza, elkarriketa-teknikak...
- Gatazkan parte hartu duten aldean arteko kontziliazioa eta eragindako kaltearen ordaina sustatzea.

b. Gatazken hezkuntza-tratamendua

- Gatazka landu.
- Bitartekaritza lantzea.
- Gatazkak konpontzeko prozedura egituratuak.
- Urratutako arauekin edo portaera desegokiekin loturiko hezkuntza.

c. Elkarbizitza positiborako konpromisoen aldeko ekintzak.

3. multzoa. Elkarbizitza positiboarekin bat ez datozen jokabideak berriro bideratzeko ekintzak

Gure ahaleginak elkarbizitza positiborantz bideratu behar baditugu ere, zenbaitetan ondo kudeatzen ez diren gatazkak sortzen dira, eta hezkuntza-erantzun bat eman behar zaie. Oso garrantzitsua da aztertzea zein egoera eta testuinguruan sortu diren. Ahalegin handi bat egin behar da gertaera, arrazoi eta ondorioen hausnarketa sakon bat egiteko eta eragindako kaltea onartu eta kaltetua edo kaltetuari ordaintzeko. Gatazkak behar bezala konpontzen badira, elkarbizitza positiboko ezagutzak lortuko ditugu.

EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak bere baitan hartuko ditu garatzen diren ekintzak. Dekretu horretan bi prozedura-mota aipatzen dira:

- . Prebentziorako prozedurak.
 - a. Neurri zuzentzaileak ezartzeko prozedurak.

Eskola-jazarpenaren esparruko egoerei dagokienez, Hezkuntza sailburuordearen 2016ko urtarrilaren 18ko Ebazpenean, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako berdinen arteko tratu txarreko kasuetan zer jarduera-protokolo erabili arautzen duten jardunbideei buruzkoan, protokolo hori oinarritzkoa eta arautzailea dela adierazten da.

4.multzoa. Berariazko planen prestaketa eta garapena

- . Hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko plana.
- b. Hainbat alderdi lantzeko berariazko planak, hala nola ikastetxeko kide izatearen sentimendua; baloreak lantzea, hezkuntza moraleko programak, bullying-aren aurkako proiektuak, ICTren erabilera arduratsua, sare sozialen erabilera egokia,...

5. multzoa. Ikastetxeko elkarbizitzaren bilakaeraren jarraipenerako prozedurak

Garrantzitsua da aldiro ikastetxeko elkarbizitza-egoerari buruzko datuak jasotzea.

9. Bizikidetza Planaren urteko zehaztapena

Aurretik esan dugun moduan, Elkarbizitza Plana ikastetxean elkarbizitza positiboa garatzeko hezkuntza-komunitatearen asmoak eta epe labur edo luzean lortzeko estrategiak jasotzen dituen dokumentu estrategiko bat da. Ikuspegi horretatik, argi dago urtero zehaztapen bat egin behar dela, Elkarbizitza Planeko helburuak lortu ahal izateko urtean zehar gauzatu beharreko helburuak eta ekintzak finkatzeko. Plangintza hori Ikastetxeko Urteko Planean jasoko da.

Era berean, ekintzak dinamizatzeari eta helburuen jarraipena eta azterketaz arduratuko diren pertsonak izendatu behar dira, eta horrekin batera, epekatzea, koordinatzeko era edo beste edozein prozedura adierazi behar da.

Helburu horien ebaluazioa ikasturte amaierako memorian islatuko da , eta kontuan hartuko da hurrengo ikasturteko elkarbizitza-helburuak ezartzean.

Elkarbizitzaren Behatokiak, hau da institutu-komunitateko sektoreen ordezkariak biltzen duen estamentuak, urtero elkarbizitzarako helburuak proposatuko ditu, eta garatu beharreko jardueren diseinuan eta jarraipenean parte hartuko du.

Helburuek eta aukeratutako jarduerak, berekin dituzte zenbait prestakuntza-ekintza, eta Ikastetxeko urteko Planaren prestakuntza-atalean jasoko dira.

Halaber, Urteko Planean estamentuen parte hartzeko modua, ordezkariak, eta bakoitzaren zereginak eta erantzukizunak.

Prozedurak ezarriko dira komunitateko kide guztiek ikasturte bakoitzeko helburuak ezagut ditzaten, eta haiek lortzen lagun dezaten.

9.1 Elkarbizitza giro on bat sustatzeko jarduerak. Aniztasuna balioztat hartzen

Elkarbizitzarako giro egokia aniztasunarekiko errespetuan onarritzen da.

Aniztasun hau aberastasun bezala ikusten dugu gure ikastetxean.

Helburu garrantzitsu honekin jarduera desberdin eta ugari planteatzen ditugu

ikasturtean

zehar:

- Hezkuntza afektibo-sexualaren inguruko tailerretan genero-aniztasuna lantzen da
- Interkulturalitatea ere gure curriculumean txertatuta dago
- Homofobiaren prebentzioa tutoretza planean atxikituta dago
- Osasun mentala aintzat hartuz antsietateari aurre-hartzeko pautak jasotzen dute ikasleek
- Ikasteko zailtasunak edo hezkuntza premia bereziak dituzten ikaseei erantzun egokiagoa ematen diegu curriculumeren atal batzuen egokitzapenekin
- Hezkidetzeta plana zutabetzat hartuz gizon-emakumeen rola aztertu eta eztabaidatzen ditugu berdintasunaren bidean
- Gatazka egerak normalizat hartuz, hauen kudeaketa egoki bat lortzeko jarraibideak ezartzen ditugu
- Adimen-gaitasun handiak dituztenekin ere lan berezi bat egitea planteatzen da, hauetako bakoitzak behar duen curriculum-egokitzapenean oinarrituz
- Hezkuntza sailak martxan dituen protokolo desberdinei ere garrantzia ematen diegu. Klaustroak ikasturte bakoitzaren hasieran hauen inguruko trataera eta informazioa jasotzen du.

9.2 Berandu eskolatzen diren ikasleentzat harrera plana

Ikastetxeko harrera-planan jasotzen dira ikasle berri bat gure ikastetxean sartzen denean egin beharreko lan guztiak: nork eta nola erantzungo dion familiari, zer informazio emango zaion, nork eta nola lagunduko dien gure ikastetxearen funtzionamendua ulertzen...

Harrera-plana, eragile bakoitzaren (zuzendaritza, tutorea, etab.) berariazko eginkizunak alde batera utzita, eskola-komunitate osoaren zeregina da: ikastetxeko pertsona guztiak argi izan behar dute zer egin familia batek eskola-matrikula eskatzen duen lehen unetik, nola aurre egin ikasgelan lehenengo egunari, nola lagundu ikasle berriei eskola-dinamikara egokitzeko prozesuan, etab. Horretarako, beharrezkoa da ikasle berrien familia-egoera ezagutzea: haien bizitza eta eskola esperientziak, hona etorri aurretik gertatu diren gorabeherak ...

7.3 Gatazkeei eta berdinen arteko jazarpenari aurre hartzeko printzipioa: probentzia

Pertsonen eta taldeen gatazka bati aurre egiteko beharrezko gaitasunak ematea esan nahi du probentzio hitzak. Probentzia gatazken probentziotik desberdintzen da. Honen helburua ez da gatazka saihestea, nola aurre egin ikastea baizik.

Probentzia aintzat hartuz maila bakoitzerako diseinatuta dugun Tutoretza Plana hartuko dugu lan abiapuntutzat. Ikasturte hasiera hasieratik pautak emango zaizkie ikasleei gertatuko diren gatazkei ahal eta era egokienean erantzuna emateko.

Hauek dira gakoak:

- 1- Gatazka elkarbizitzaren egoera sahiestezin bat bezala ulertu behar da. Pertsonen arteko harremanetan askotan desadostasunean egongo gara interes eta behar desberdinak izango ditugulako.

2- Gatazka perpektiba baikor batetik aztertu behar da. Gizarte batean bizitzen ikasi behar dugu. Ikasteko aukera bezala ikusten dugu gatazka.

3- Gatazka baten aurrean bakoitzaren jarrera aztertu behar dugu: agresibitatea erabili, onartu ala asertibitatez jokatu.

4- Gatazka konpontzeko era desberdinak landuko ditugu: lehiaketa, egokitzea, ihesbidea. Kooperazioa eta negoziazioa bultzatuko dugu.

5- Bakoitzaren egoera gatazkatsuak aztertu eta estrategiak diseinatuko dira: laguntza eskatzearen garrantzia azpimarratuko dugu.

6- Pertsonen arteko harremanak hobetzeko gaitasunak landuko ditugu: harremantzen ikasi, kexatzen ikasi, “ez” esaten ikasi, mesede bat eskatzen ikasi, barkamena eskatzen ikasi.

7- Emozio trebetasunak landuko ditugu: emozio baikorrak azaltzen ikastea, akatsak bizitzarako ikasketak bezala onartzen ikastea, iritziz aldatzeko eskubidea onartzea eta bestearen akatsen errua nire bakoitzaren ez hartzea.

10. Zabalkuntza

1. Elkarbizitza Planaren zabalkuntza

Elkarbizitza Planeko helburuak modu arrakastatsuan lortzeko komunitateko kide guztiek ezagutu eta partekatu behar dituzte. Horregatik:

a) Ikastetxearen webgunean Elkarbizitzaren Plana eta haren laburpena aurki daitezke. Bertan esteka bat dago, non Elkarbizitza Plana eta Behatokiaren funtzionamendua hobetzeko iritzi, iradokizun et proposamenak eman daitezkeen.

b) Ikastetxeak Hezkuntza Proiektuaren eta Elkarbizitza Planaren alderdirik nagusienak jasoko dira dokumentu batean. Dokumentu hori eskola-komunitateko kide guztien eskura dago.

Aipatutako dokumentu horretan elkarbizitzari buruzko oinarritzko araudia, jarduera-protokoloak, prebentziozko jarduerak etab. adierazten dira.

c) Ikasturte-hasierako bilerak. Ikasturtearen hasieran familiekin, ikasleekin, klaustroarekin, guraso elkartarekin eta abarrekin izaten diren bileretan, hainbat gairen artean, Ikastetxeko Elkarbizitza Planaren funtsezko zenbait alderdi eta haien urteko zehaztapenak aztertzen dira

d) Tutoretza Planaren jarduera-programaren barnean, tutoretza-saio batean, Ikastetxeko Elkarbizitzarako Planaren helburuak eta jarduera-ildoak aztertzen dira, eta baita urteko elkarbizitza-helburuak eta –jarduerak, ...

e) Urtero, kultura asteko jardueren artean Elkarbizitza Planeko helbururen bat garatzera bideratutako jarduera bat, gutxienez, egingo da.

2. Helburuen eta urtean burutu beharreko jardueren zabalkuntza

Ikasturte bakoitzeko helburuak ikastetxeko sarrerako atondoan jartzen dira ikusgai, bertara sartzen den edonork ikus ditzan.

Urtero, Webgunean jartzen da Ikastetxeko Urteko Plana.

3. Eskola-jazarpenaren aurrean jarraitu beharreko protokoloaren zabalkunde

Elkarbizitza Planean hezkuntza-komunitateari eskola-jazarpenaren protokoloaren berri emateko prozedura et horrelako kasuetarako jarduera-jarraibideak ezarriko dira. Gure ikastetxean, ikasturte hasierako bileretan, OOGren lehen bileran, eta klaustroaren lehen bileretako batean aurkeztuko dira protokoloa eta, eskola-jazarpenaren zantzua duen portaeraren baten jakitun izanez gero, jarraitu beharreko prozedurak

4. Hezkidetza eta Genero-indarkeriaren Prebentziorako Planaren zabalkunde

...

11. Bizikidetza Planaren jarraipena eta ebaluazioa

1. Elkarbizitza Planaren ebaluazioa

Elkarbizitza Planaren eraginkortasuna neurtzeko aztertze eta baloratze-prozesu sistematizatu izan behar du ikastetxeak bere helburuak lortzen dituela bermatzeko eta elkarbizitzaren hobekuntzan aurrera egiteko. Urteko elkarbizitzako helburuen ebaluazioaren emaitzak oinarrizko erreferentziak izango dira Elkarbizitza Plana ebaluatzeko:

- a) Hezkuntza-komunitateak zenbateraino ezagutzen duen Elkarbizitzaren Plana. Kontuan izan behar da kideak denborarekin aldatu egiten direla; batxilergoko taldeak baino ez ditugu. Hori dela eta, urtero zuzendaritzak galdera-sorta bat pasatuko die ikasleei eta familiei tutoretza-saioen bidez.
- b) Zabalkunderako eta sentsibilizaziorako prozeduren eraginkortasuna. Elkarbizitzaren Behatokiak erabakiko du erabiltzen ari diren zabalkunde- eta sentsibilizazio- prozedurak bere horretan mantentzea, edo beste batzuk proposatuko ditu.
- c) Urtero helburuen lorpen-maila eta Elkarbizitza Planeko helburu orokorrak lortzeko izan duten eragina.
- d) Urtero galdera-sorta pasatuko da, guztien ongizatea eta ikastetxeko parte izate-sentimendua indartuko duen elkarbizitza-giroa lortzeko.
- e) Ikastetxeko elkarbizitzaren bilakaera. Urtean behin ikastetxeko zuzendaritzak ikastetxeko elkarbizitza eten duten egoeren berri emango dio Elkarbizitzaren Behatokiari, eta baita hartutako neurrien berri ere.

Ikasturteen arteko azterketa konparatiboak egingo dira:

Etxebarriaur, 8

01470 Amurrio (Araba)

tel. 945393000

fax. 945393682

zaraobe@zaraobe.net

www.zaraobe.hezkuntza.net

- f. Elkarbizitza Planaren helburuen jarraipena eta ebaluazioa. Garrantzizkotzat ere jotzen diren ekintzak erregistratuko dira.
- g. Elkarbizitza Plana eguneratu egingo da testuinguruaren baldintzak aldatzen badira.

2. Urteko elkarbizitza-helburuen ebaluazioa.

Ikastetxeko zuzendaritza arduratuko da ikasturterako planifikatutako helburu eta jarduerak kudeateaz, eta Elkarbizitzaren Behatokiari emango dio kudeaketa horren berri, Ebaluazio hori Urteko memorian jasota geratuko da.

Ikasturteko memorian proposaturiko helburuen lorpen-maila aztertuko da; ondorioak aterako dira, eta hurrengo ikasturteko helburuak ezartzeko oinarri izango diren hobekuntza-proposamen berriak sortuko dira, hala nola, ikasturteko elkarbizitza-egoerari buruzko datuak; honako hauek balioztatuz: elkarbizitza eten duten egoera-kopuruaren bilakaera eta egoera mota; hartutako neurri-mota, eta eginiko esku-hartzeak, antolaketa, funtzionamenduaren inguruko proposamenak, Elkarbizitzaren Behatokiari buruzkoa, ...

PROIEKTUA GARATZEKO URRATSAK

AURKIBIDEA

1. PROIEKTUA NOLA GARATUKO DEN: TESTUINGURUA ETA EZAUGARRI OROKORRAK ZEIN BEREZIAK
2. PROIEKTUAREN ANTOLAKUNTZA-SISTEMA ETA LANAREN PLANIFIKAZIOA
3. PROIEKTUA ABIAN JARRI, ETA SEGIDAN EMANGO DITUGUN PAUSUAK
4. HELBURUEN ETA PROIEKTUAREN LORPEN MAILA
5. PROIEKTUAN ZEHAR ERABILIKO EBALUAZIO PROZESUAREN LABURPENA
6. PROIEKTUAREN URRATSAK
7. ERANSKINAK

1. PROIEKTUA NOLA GARATUKO DEN: TESTUINGURUA ETA EZAUGARRI OROKORRAK ZEIN BEREZIAK

2007ko maiatzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Urteko Elkarbizitza Plana egin eta Elkarbizitza Behatokia eratzeko deialdia ezagutzera eman zuen.

Ikastetxean positiboki baloratu genuen aukera hau hezkuntza-komunitatearen partaidetza eta identifikazio maila areagotzeko asmoa zegoelako, ekintza sistematiko bat aurkeztu zitzaigulako, ondo antolatua, espazio ea denbora zehaztuarekin, plan gradual batekin, denboran zehar egonkorra eta iraunkorra izango dena, eta baita elkarbizitza-kultura berri bat sustatzeko asmoa erakutsi zitzaigulako ere.

ZARAOBE ikastetxean Urteko Elkarbizitza Plana eta Behatokiaren ardura eraman izan dugun irakasleok, zentroaren ezaugarriak kontuan izanik, proiektu hau aurrera eramateko eredu ofiziatelik apur bat aldendu izan gara.

Ezaugarriak ondokoak izan dira:

- Ikastetxe honetako ikasleak DBHkoak, batxilergokoak eta LHkoak dira.
- Beste aldetik, eta errez uler daitekeenez, zentro honetan ikasleek bizitza akademiko luzea dute, eta horrek eragin handia du beraiek zentroarekiko duten loturarekin.

- Hortik, “pertenentzia-sentimenduan” ikasturtearen hasieran nabaria dagoela konturatu gara. Beraz, sentimendu hau hurrengo ikasturterako lantzeko eta indartzeko helburuen artean kokatu dugu.
- Hori dela eta proiektuaren zenbait fasetan erabilitako baliabideak, gure ustez, ikastetxe honen errelitatera egokituta daudela ikus daiteke.

Ikastetxearen ezaugarri batzuk:

IKASLE KOPURUA: 927

IRAKASLEAK.: 139

ORIENTATZAILEA: 3

ZUZENDARITZA: 7

BULEGARIAK: 3

ATEZAINAK: 4

GARBITZAILEAK: 8

Ikasle berrien jatorri akademikoa: inguruko herrietako ikastetxetatik datoz.

2. PROIEKTUAREN ANTOLAKUNTZA-SISTEMA ETA LANAREN PLANIFIKAZIOA

Ikasturte hasieratik, koordinazio-talde bat osatuko dugu proiektu hau bultzatzeko: orientatzailea, ikasketa burua eta irakasle bat.

Talde honetan erabakiko ditugu aurrera eraman nahi ditugun dinamika eta lan-ekimen guztiak.

Proiektuaren garapena planifikatzeko, proiektuaren eskema eta dagokion denboralizazio posiblea eratu ditugu.

Aktibitate biak ondoren zehaztuko ditugu:

A. DENBORALIAZAZIOA

LEHEN HIRUHILEKOA

Helburuak

- Ezagutu Institutuaren beharrak eta egoera gai honekiko.
- Definitu eta antolatu estamentuen partaidetza.
- Antolatu talde bat proiektu hau institutuan bideratzeko.
- Sentsibilizazio eta diagnostiko faseak batera hasi lantzen.
- Behatokiaren sorrera eta lehenengo bilera egin. Behatokia aurkeztu.

Ekintzak

- Osatu talde bat proiektu hau institutuan bideratzeko.
- Jarduera osagarriak zehaztea eta gauzatzen hasi.
- Informazioa plazaratzea eskolako estamentu guztien artean.
- Antolatu lehenengo datuen bilketa (inkestak) diagnostikoa egin ahal izateko.
- Erabiliko diren informazio eta partizipazio organo kolegiatuak: klaustroa, delegatuen bilerak, tutoreen bilerak, mintegi buruen bilerak eta guraso elkarteko bilerak.
- Parte hartu Berritzegunek antolatzen dituen bileratan kanpoko koordinazioa izateko.

BIGARREN HIRUHILEKOA

Helburuak

- Sentsibilizazio eta diagnostiko faseak batera landu
- Diagnostiko fasea burutu eta beraien ondorioak konpartitu eskolako sektore guztiekin

Ekintzak

- Inkestak pasatu sektore guztietan.
- Datuak batu eta egokitu. Diseinatu txantilo egoki bat datuak kudeatzeko.
- Inkestaren emaitzen informazioa bideratu. Tutoreei koordinazio bilerak.
- Proposamenak. Sektore guztien iritziak jaso.
- Jarduera osagarriak burutu.

HIRUGARREN HIRUHILEKOA

Helburuak

- Hurrengo ikasturteari begira Elkarbizitza plana eta memoria prestatu

Ekintzak

- Elkarbizitza plana estamentu guztietara aurkeztu
- Eskola kontseiluan aurkeztu eta onartu

3. PROIEKTUA ABIAN JARRI ETA SEGIDAN EMAN DITUGUN URRATSAK

1. Elkarbizitza Behatokia

Etxebarriaur, 8

01470 Amurrio (Araba)

tel. 945393000

fax. 945393682

zaraobe@zaraobe.net

www.zaraobe.hezkuntza.net

Jarraituko ditugun urratsak:

1. Koordinazio taldearen barruan planifikatzea
2. Klaustro aurrean gaia aurkeztu, eztabaidatu eta aukeratu aurkeztutako proposamen artean behatokiaren konposizioa eta oinarrizko funtzioak
3. Ikasleen delegatuen aurrean gaia aurkeztu, eztabaidatu eta proposatu beraien arteko ordezkari batzuk hautatzeko, ordezkari horiek aurton elkarbizitza behatokiaren partaideak izango direlakoan
4. Guraso elkartearen aurrean gaia aurkeztu, eztabaidatu eta proposatu beraien arteko ordezkari batzuk hautatzeko
5. Eskola-kontseiluan gaia aurkeztu eztabaidatu eta bozkatu: organo berriaren eraketa, funtzioak, konposizioa eta sektore bakoitzaren ordezkariak
6. Elkarbizitza behatokiaren lehenengo bilera egiteko finkatu data bat, lehen hiruhilabetetan amaitu baino lehen

2. Urteko Elkarbizitza Plana

SENTSIBILIZAZIO fasean:

Jarraituko ditugun urratsak:

1. Koordinazio taldearen barruan planifikazioa
2. Ikasleen delegatuekin bilera batean proiektuaren xedea eta helburuak aurkeztu.
3. Guraso elkartearen aurrean gaia aurkeztu eta elkarrizketatu
4. Ondoren eskola kontseiluaren kurtsuaren hasierako bileran gaia aurkeztu.
5. Denboralizazioaren ikuspegitik aktibitate hauek lehenengo hilabeteetan burutu dira.
6. Bukatzeko esan beharra dago sentsibilizazio fasea ez dugula amaitutzat emango, ikasturtearen zehar kontuan hartuko dugu.

DIAGNOSTIKO fasean:

Jarraituko ditugun urratsak:

1. Ikasleei pasatzeko ikestak diseinatu eta aurkeztu tutoreei.
2. Batxilergoko ikasleei mugatzea. Guk ez daukagu DBH-rik.
3. Irakasleei pasatzeko inkestak ere diseinatu ditugu. Aldez aurretik Berritzegunetik eskainitako materiala aztertu dugu baina kontuan hartuz zentroaren ezaugarriak horiek ere moldatu beharrean izan gara.
4. Gurasoei pasatzeko inkesta kasuan, antzeko prozesua jarraitu dugu.
5. Administrazio eta zerbitzuetako langilearen iritzia jaso genuen beste inkesta baten bidez.
6. Inkestak pasatu ondoren datuak bildu eta azterketa eta balorazioak egin ditugu.
7. Datu guzti horiek sektore guztien aurrean aurkeztu ditugu eta baita beraiekin konpartitu ere guk atera ditugun ondorioak
8. Denboraren aldetik ekintza hauek ikasturtearen zehar garatu ditugu.

PLANIFIKAZIO fasean:

Jarraituko ditugun urratsak:

1. Inkesten emaitzak, sektore guztiekin baloratu ondoren, hobekuntza esparru edo arloak atera ditugu.
2. Hobekuntza esparru horiek, datorren ikasturteari begiraturaz, helburu bezala planteatu ditugu.
3. Helburu horiek zehazten ari gara ondoko irizpideen arabera: *ekintzak, arduradunak, denboralizazio, baliabideak eta lorpen adierazgarriak.*

JARRAIPEN ETA EBALUAZIO fasean:

Fase honetan eman daitezkeen urratsak aurreko fasea amaitu eta gero burutu beharko lirateke gure ustez. Hori ikasturte berriaren lana bezala hartuko dugu eta horrela planifikatzen ari gara.

4. HELBURUEN ETA PROIEKTUAREN LORPEN-MAILA

Behatokia

Behatokiaren kasuan, erakunde moduan eratuta dagoela esan daiteke. Lehenengo bilera burutuko dugulako eta sektore guztien ordezkariak parte hartuko direlako.

Organo honen funtzionamenduaren ikuspegitik, ikasturte honetan *hastapena eta sortu* besterik ez dugu egingo eta honek egin dezakeen lana eta izan dezakeen eragina ikastetxearen barruan hurrengo urtetan ikusiko da.

Aurretik azaldu dugun moduan, organoaren eraketaren moduan, lehenengoan klaustroan eta geroago eskola kontseiluan kide-kopurua eta funtsezko helburuak eztabaidatu eta aukeratuko ditugu.

1. Hona hemen Oinarrizko funtzioak:

- . Sustatu pertenezia-sentimendua pertsona guztiengan, batez ere, ikasleengan.
- a. Sustatu Hezkuntza Komunitate osoan harreman positiboak. Horretarako, proposatu eta dinamizatu mota askotako jarduerak, hala nola: topaketak, jaialdiak, kartelak, ...
- b. Aztertu Ikastetxearen elkarbizitza-arauak.
- c. Proposatu protokoloak edota neurriak, egunerokoan sortzen diren beharrak eta gatazkak kudeatu eta bideratzeko. Neurri alternatiboak proposatu.
- d. Jaso proposamenak, egonezinak eta iradokizunak, estamentu guztiengandik, gatazkak konpontzeko eta elkarbizitza osasuntsua eratzeko.
- e. Detektatu berdinen arteko tratu txarrak edota indarkeria kasuak eta bermatu adostutako neurriak lehenbailehen martxan jartzea.

Horiek guztiak Bizikidetzeta eta Jazarpen Planarekin harremanetan daude.

Etxebarriaur, 8

01470 Amurrio (Araba)

tel. 945393000

fax. 945393682

zaraobe@zaraobe.net

www.zaraobe.hezkuntza.net

2. Osaketa

SEKTOREAK

Zuzendaritza
Orientazio saila
Irakasleak
Jantoki eta garraio arduraduna
Ikasleak
Admin. Eta Zerbitzu Pertsonala
Guraso edo arduradun legalak

PLANA

Planaren ikuspegitik, lanik handiena sentsibilizazio eta diagnostikoen faseek eramango dutela esan beharra dago. Erabiliko ditugun inkestak eta datuak kudeatzeko sistema eta metodologiak propioak direlako.

Inkestak eta kudeatzeko erabiliko ditugun materialak eranskin digitalean etortzen dira.

5. PROIEKTUAN ZEHAR ERABILIKO EBALUAZIO-PROZESUAREN LABURPENA

Hasiera eta Prozesu Ebaluaketa: kurtsoan zehar eramango dugun metodologiaren arabera, martxan jarriko ditugun fase guztiak eta egin eta burutu ditugun ekintza guztiak, koordinazio taldearen barruan aztertu eta ebaluatuko ditugu.

Ebaluazio horietan, abian ipiniko ditugun ekimen eta aktibitate guztiak eztabaidatu eta, beharrezkoa izan denean, aldatuko ditugu. Fase batzuetan, arrakasta gehiago eta beste batzuetan gutxiagoarekin.

Azken ebaluaketa: ikasturte amaieran egingo da.

Bilera horiei dagozkien aktetan agertuko dira gai horren inguruan zenbait balorazio.

6. PROIEKTUAREN URRATSAK

Helburuak

- 1. IKASLE BERRIEN HARRERA LANTZEA (partaidetza, emozioak, sentimenduak eta identitatea)**
- 2. AJA-REN BERRAZTERTZEA ETA PROZEDURA EGOKIAK SORTZEA (bizikidetzaren antolakuntza eta kudeaketa. Gatazkak aurre egiteko prozedura eta etika)**

3. GURASO-IRAKASLEEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA. INFORMAZIOA. (partaidetza, emozioak, sentimenduak eta identitatea)
4. IRAKASLEEN PARTIZIPAZIOA. (partaidetza, hezkuntza politika)
5. SORTU PARTE-HARTZEAREN AGIRI “OFIZIALAK” (ikasleen partaidetza bultzatzeko.
6. FESTAK (partaidetza)
7. BEHATOKIAREN ERAKETA (hezkuntza-politika)
8. GAUZATU BEHARREKO HOBEKUNTZA-EKINTZAK

1. IKASLE BERRIEN HARRERA LANTZEA

Ekintzak	Arduradunak	Denboralizazioa	Baliabideak	Lorpenak
Ikasleei ematen zaien informazioa aztertzea	Elkarbizitza arduradunak/tutoreak	24-25 ikasturtearen hasieran	Ikasleei emandako KIT	
Orientatzaile eta tutoreekin informazioa komentatzea	Elkarbizitza arduradunak, tutoreak/orientatzailea	24-25 ikasturtearen amaieran	Datorren urtean banatuko dugun KIT	
Irakasleek prestatu eta garrantzia eman ikasleen arteko harremanak indartu eta ezagutzeko	Irakasleak/tutoreak	24-25 ikasturtearen hasieran		
Ikastetxean bizikidetza positiboa duen giroa sortu, non komunitatek o kide guztiak partaide sentitzen diren	Elkarbizitza arduradunak, tutoreak/orientatzailea, irakasleria,familiak, ikasleria	Bilerak: kurtso hasieran, Ebaluazio bakoitzaren ostean Iksturtearen zehar	Bizikasiaren materiala	

2. AJA-REN BERRAZTERTZEA ETA PROZEDURA EGOKIAK SORTZEA

Ekintzak	Arduradunak	Denboralizazioa	Baliabideak	Lorpenak
Eskuratu ikasturte honetako barne-araudia	Tutoreak/orientatzailea/ elkarbizitza arduradunak	2024ko iraila	Ikasleei zein gurasoei ematen zaien KIT kurtso hasieran/sailburuak bidaltzen duen arautegia	
AJA-ren atal batzuk aztertu	Elkarbizitza arduradunak /orientatzailea	2024ko iraila	Ikasleei zein gurasoei ematen zaien KIT kurtso hasieran/sailburuak bidaltzen duen arautegia	
Egokitu txoten hori egungo praktikara. Ondo dagoena utzi eta hutsuneak aldatu	Elkarbizitza arduradunak/ zuzendaritza/ klaustroa	2024ko azaroa	Txosten egokitua	
Prestatu prozedura eta denon artean berriztatu eta eguneratzeko	Elkarbizitza arduradunak/zuzendaritza	2025ko ekaina	Txosten egokitua	

3. GURASO-IRAKASLEEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA. INFORMAZIOA

Ekintzak	Arduradunak	Denboralizazioa	Baliabideak	Lorpenak
Urtero gurasoei banatzen zaien informazioa eskuratu eta aztertu	Elkarbizitza arduradunak/tutoreak/ orientatzailea/zuzendaritza	2024ko iraila	Gurasoei banatzen zaien KIT / zentroaren web-gunea	
Baloratu eman daitekeen informazioaren edukiera eta formatua kurtsoan zehar	Elkarbizitza arduradunak/tutoreak/ orientatzailea/zuzendaritza	2024ko iraila	Bilerak tutoreekin kurtso hasieran/ zentroaren web-gunea	
Guraso orduari buruz pentsatu eta aztertu nola hobetu	Elkarbizitza arduradunak/tutoreak/ orientatzailea/zuzendaritza	2024ko iraila	Gurasoei banatzen zaien KIT/ Bilerak tutoreekin kurtso hasieran	

4. IRAKASLEEN PARTIZIPAZIOA

Ekintzak	Arduradunak	Denboralizazioa	Baliabideak	Lorpenak
Aztertu sistema bat irakasleen iritzia jasotzeko eta beraien partaidetza bultzatzeko	Elkarbizitza arduradunak/ orientatzailea	2024ko azaroa	Batzarrak	
Irakasleek egindako proposamenak jaso eta landu, eta gure aldetik beste batzuk sortu	Elkarbizitza arduradunak/ orientatzailea/ mintegi buruak	2024ko kurtso osoan zehar	Mintegi buruen batzarrak	
Prestakuntza plana egin eta garatu. Horretarako, bildu irakasleek dituzten interesak eta kexak	Elkarbizitza arduradunak/ orientatzailea/ zuzendaritza	2025ko ikasturtearen amaiera datorren urteari begira	Ebaluazio bilerak, Mintegi bilerak, inkestak	

5. SORTU PARTE-HARTZEAREN AGIRI “OFIZIALAK

Ekintzak	Arduradunak	Denboralizazioa	Baliabideak	Lorpenak
Diseinatu agiri bat ikasleen partaidetza egiaztatzeke eta bultzatzeko	Elkarbizitza arduradunak/ orientatzailea/ zuzendaritza	2025ko amaieran	Guk egindako ereduak	

6. FESTAK

Ekintzak	Arduradunak	Denboralizazioa	Baliabideak	Lorpenak
Parte hartu eta geroago ebaluatu aurreko egiteko diren jaiak	Elkarbizitza arduradunak/ orientatzailea/ zuzendaritza/ irakasleak/ikasleak	2024ko iraila	Bilerak eta jaiak prestatzeko lan taldeak	
Baloratu hurrengo ikasturtean egiteko jaiak	Elkarbizitza arduradunak/ orientatzailea/ zuzendaritza/ irakasleak	2025ko ikasturtearen amaiera	Bilerak eta jaiak prestatzeko lan taldeak	
Errespetuan oinarritutako harremanak sustatu	Elkarbizitza arduradunak/ orientatzailea/ irakasleria/ tutoreak	Ikasturtean zehar	Ekintza osagarriak eta jaiak	

7. BEHATOKIAREN ERAKETA

Etxebarriaur, 8

01470 Amurrio (Araba)

tel. 945393000

fax. 945393682

zaraobe@zaraobe.net

www.zaraobe.hezkuntza.net

Ekintzak	Arduradunak	Denboralizazioa	Baliabideak	Lorpenak
Eratu behatokia ikasturtearen hasieran	Elkarbizitza arduradunak	2024ko iraila	Bilera	
Aztertu metodoa behatokiaren partaideak hautatzeko	Behatoki kideak	2024ko iraila	Bilera	
Proposatu metodoa behatokiaren funtzionamendurako arauak	Behatoki kideak	2024ko iraila	Bilera	

8. GAUZATU BEHARREKO HOBEKUNTZA-EKINTZAK

- **Errespetuan oinarritutako harremanak sendotzeko ekintzak antolatu**
- **Ikasleek ikas-komunitatearekiko izan beharreko erantzukizunak landu: autonomia (informazioa, kezkak, komunikazioa, ...) ikastetxeko organoetan parte hartzea, elkartasuna eta enpatia gatazken kudeaketan.**
- **Ikastetxeko Elkarbizitza Araudia ezagutarazi eta honen inguruko hausnarketa lana egin.**
- **Teknologia berrien erabilera era egokian eta errespetuz garatzeko ekintzak.**

Ekintza	Arduradunak	Denbora	Baliabideak	Lorpenak
<p>Tutoretzan ondoko gaiak jorratuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Norberaren materiala eta denboraren kudeaketa. -Ikastetxeko materiala eta mobiliarioaren kudeaketa eta zaintza. -Ikasleen familia eta ikastetxearen arteko bitartekaritza lana -Elkarbizitza Araudia: <ul style="list-style-type: none"> + ikasleen eskubideak eta betebeharrak(dekretua) + Jokabide desegokiak, bizikidetzaren aurkakoak eta bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkioten jarrerak(dekretua) +Ikasleen eskuko telefonoen erabilpena -Gatazken prebentzioa eta kudeaketa -Ikastetxeko parte hartzeko organoak jakinaraztea 	Tutoreak/ ikasleak/ orientatzailea/ Elkarbizitza arduradunak/ zuzendaritza	Ikasturtean zehar	Ikastetxeko dokumentuak/ araudia/ bilerak	- .

Eskola Kontseiluan eta bere Batzordeetan ikasleen parte hartzea bultzatu.	Eskola Kontseiluko hauteskundeak eta ordezkariak/ zuzendaritza/ orientatzailea	Hauteskunde garaian eta ikasturtean zehar	Deialdiak	
Ikastetxeko eguneroko jardueran sortzen diren gatazken prebentzioa eta kudeaketa	Tutoreak/ irakasleak/ ikasleak/ orientatzailea/ Elkarbizitza arduradunak/ zuzendaritza	Ikasturtean zehar	Arautegia	
Ekintza osagarriak planifikatu eta jorratu ikasleen arteko harremanak hobetzeko	Tutoreak/ irakasleak/ ikasleak/ orientatzailea/ Elkarbizitza arduradunak/ zuzendaritza	Ikasturtean zehar	Ekintzaren araberakoak	

- **Aniztasunari erantzun egokia bilatu**

Ekintza	Arduradunak	Denbora	Baliabideak	Lorpenak
<p>Hasierako fasea eta plangintza: egoeraren diagnostikoa, programan parte hartzeko irizpideak finkatu, ikasleen aukeraketa, programazioak, metodologia eta ebaluatzeko irizpideak egokitu.</p> <p>Esku-hartze eta jarraipen fasea: ikasleekin esku-hartzea eta jarraipena</p> <p>Ebaluazio fasea: ikasle eta prozesuaren ebaluazioa eta hobetzeko proposamenak egin.</p>	Tutoreak/ irakasleak/ ikasleak/ orientatzailea/ Elkarbizitza arduradunak/ zuzendaritza	<p>Ikasturtearen hasieran</p> <p>Ikasturtean zehar</p> <p>Ikasturtearen amaieran</p>	Programazioak	-

- **Ikastetxeko arautegia eragile guztiei jakinarazi**
- **Ikastetxeko arautegia aplikatzeko orientabideak eman.**

Ekintza	Arduradunak	Denbora	Baliabideak	Lorpenak
Ikasturte hasierako txostena aztertu eta beharrezkoa izatekotan gaurkotu.	Orientatzailea/ Elkarbizitza arduradunak/ zuzendaritza	Ekaina-uztailean	Aurreko ikasturteko/ elkarbizitza araudia eta dokumentuak	

Ikasturte hasierako klaustroan Elkarbizitzaren kudeaketa prozedura azaldu	Orientatzailea/ Elkarbizitza arduradunak/ zuzendaritza	Ikasturte hasieran	Klaustro bilera/ elkarbizitza araudia eta dokumentuak	
Mintegietan txostena aztertu, zalantzak argitu eta dokumentazioa gordetzeko prozedura gogoratu	Irakasleak/ mintegi buruak	Ikasturtearen hasieran.	Mintegi bilerak/ txostena/ elkarbizitza araudia eta dokumentuak	
Eguneroko jardueran sortzen diren Jokabide Desegokien aurrean jokatzeko argibideak eman	Elkarbizitza arduradunak/ zuzendaritza	Ikasturtean zehar	Elkarbizitza araudia/ txostena	

- **Gatazkak kudeatzeko protokoloak eguneratu eta bateratu.**

Ekintza	Arduradunak	Denbora	Baliabideak	Lorpenak
Elkarbizitza araudia(AJA/ROF) urtero aztertu	Orientatzailea/ Elkarbizitza arduradunak/ zuzendaritza/ irakasleak/ Ikasleak	Ikasturtean zehar	Elkarbizitza araudia	
Elkarbizitza proiektua egiteko argitaratu den gida berria aztertu eta gure proiektuarekin alderatu.	Orientatzailea/ Elkarbizitza arduradunak/ zuzendaritza	Ikasturtean zehar	Gida berria	
Hezkidetzako proiektuko ekintzak Elkarbizitza Planean txertatu	Orientatzailea/ Elkarbizitza arduradunak/ zuzendaritza	Ikasturtean zehar	Hezkidetzako ekintzak/ Elkarbizitza plana	
Intzidentziak edo jarrera desegokien kudeaketa hobetu	Elkarbizitza arduradunak/orientatzailea/Irakasleak	Behar denean	AJA/Berritzegune ko materiala/Arloko programazioak	

- **Gurasoen parte-hartzea handitu eta harremanak sendotu.**

Ekintza	Arduradunak	Denbora	Baliabideak	Lorpenak
Ikasturte hasierako bilera: -Familien parte hartzearen garrantzia azpimarratu. -Gatazkak kudeatzeko Protokoloa eta indarrean dagoen araudia gurasoei jakinarazi. -Ikastetxeko Web gunean aurkeztu.	Orientatzailea/ Elkarbizitza arduradunak/ zuzendaritza	Ikasturte hasieran	Ikasturte hasierako bilera/ familientzako txostena/ web gunea	

-Ikastetxeko organoetan parte hartzeko gonbitea luzatu.				
Web orriaren bitartez familientzako informazio orokorra zabaldu	Gurasoak/ IKT arduraduna/zuzendaritza	Ikasturtean zehar	Web orrialdea	
Familientzako informazio pertsonalizatua zabaldu e-mailaren/Einika bidez	Gurasoak/ IKT arduraduna/zuzendaritza/ irakasleak/ ikasleak	Ikasturtean zehar	Familien e-mailen zerrenda	
Tutoreen bitartez familientzako informazio pertsonalizatua zabaldu	Gurasoak/ tutoreak	Ikasturtean zehar	Noten buletinak/aldez aurreko elkarrizketak zein telefono bitartekoak	
Laguntza eta komunikaziorako bideak ezarri eta sustatu	Familiak/Elkarbizitzako arduradunak/ Orientatzailea/ tutoreak	Ikasturteko hasieran	Tutoretza saioak	

- **Gatazka guneak eta uneak (pasabideak, klase saio tartekoak, ...) aurreikusi.**
- **Eragile guztiek une eta esparru hauetan izan beharreko erantzunkizuna azpimarratu.**

Ekintza	Arduradunak	Denbora	Baliabideak	Lorpenak
Ikastetxeak dituen espazio murrizketak sortzen dituen gorabeherak eta nola jokatu irakasleei jakinarazi	Zuzendaritza/ irakasleak	Ikasturtean hasieran eta zehar	Ikasturte hasierako bilerak	
Ikastetxeak dituen espazio murrizketak sortzen dituen gorabeherak eta nola jokatu irakasleei jakinarazi: tutoretzan/delegatuen bileretan	Zuzendaritza/ irakasleak/tutoreak/ikasleak	Ikasturte hasieran eta zehar	Tutoretza saioak+delegatuen bilerak	
Ikastetxeak dituen espazio murrizketak sortzen dituen gorabeherak eta nola jokatu gurasoei jakinarazi	Zuzendaritza/tutoreak/ gurasoak	Ikasturte hasieran	Ikasturteko hasierako bilera+familientzako txostena	

Eskola Kontseiluko arduradunak eta zuzendaritza taldeak eraikina birantolatzeko proposamenak	Eskola Kontseilua/zuzendaritza	Ikasturtean zehar	Urteko Plana/eskaera formalak/planoak	
Leku eta une gatazkatsuek aurreikusi eta ondo kudeatu	Elkarbizitako arudradunak/orientatzailea/irakasleria/atezainak, begiraleak	Ikasturtearen zehar	Elkarbizitza plana	

7. ELKARBIZITZA HOBETZEKO NEURRI OROKORRAK (bereziki DBHko 1go zikloan):

GELA BAKOITZEAN.

- 1.- Mahaiak ilaran mantentzea.
- 2.- Gela garbi mantentzea.
- 3.- Gelako materiala zaindu eta errespetatzea: pertsianak, mahaiak, mahai azpiak ...
- 4.- Zakarrentzi desberdinei erabilera egokia ematea.
- 5.- Jarrera zuzena izan, jarrera eta ahots tonua zainduaz.
- 6.-Gelan ezin da ez jan eta ez edan. Txiklea ere ez.
- 7.- Lan giroa arlo guztietan mantentzea.
- 8.- Irakaslea gelatik ateratzen azkena izango da eta gela giltzaz itxteaz arduratuko da.
- 9.- Ahal den guztietan irakasleak hurrengo irakaslearen etorrera gela barruan egingo du.
- 10.- Ezin da gelatik atera txirrinak jo arte.
- 11.- Faltako den irakasleak lana utziko du.
- 12.- Ikasle bat kanporatzen bada, parte eta lanarekin joango da Z1era.

GELEN TARTEAN

Etxebarriaur, 8

01470 Amurrio (Araba)

tel. 945393000

fax. 945393682

zaraobe@zaraobe.net

www.zaraobe.hezkuntza.net

- 1.- **Puntualitatea** guztion ardura da.
- 2.- Ezin da pasabideetara irten.
- 3.- Komunera joateko arauak bete. DBHko 1. zikloko komunak tarteetan itxita daude. Irakastorduetan irakaslearen baimenarekin erabili.
- 4.- Zaintza irakasleak, zaintzan zehar (hasiera-erdia-amaieran) zentroan zehar bueltatxoak eman beharko ditu institutuan zehar dena zuzen dagoela ziurtatzeko.

TUTORETZAN

- 1.- Ikasgela txukundu.
- 2.- Beharrak ase.
- 3.- Talde lana landu.
- 4.- Parte-hartzea sustatu.
- 5.-Arauak balioetsi eta betearazi.

OSAGARRIAK, IRTEERAK, BIDAIAK ...

- 1.- Jarrerak beti egokia izan behar du.
- 2.- Errespetua ezinbestekoa da.
- 3.- Jarrera desegokien aurrean, nahiz eta ikastetxetik kanpo gertatu/izan, ikastetxeko araudia aplikatuko da.
- 4.- Jarrera desegokia duten ikasleek, ikastetxeak antolatzen dituen ekintzetan parte hartzeko eskubidea galduko dute ekintza desegokien kopuru eta larritasunaren arabera.

JANGELA

- 1- Ezin daiteke jantokitik janaririk atera.
- 2- Ez da jangelako girotik at dagoen jarrerarik onartuko.
- 3- Esleitutako ordutegiak eta txandak errespetatzea ezinbestekoa da.
- 4.- Zerbitzua jasotzen duten ikasleek ikastetxean egon beharko

dute, berariazko baimena izan ezik.

5.- Huts egiteak justifikatu behar dira. Horretarako, zentroko

eredua erabiliko da. 6.- Eguerdian jangelan geratzen den

ikasleak, ikastetxeko araudia errespetatu behar du. 7.-

Ikastetxeko espazio guztietan arduradunen arauak

errespetatuko dira. 8.- Bazkal orduko tartean gelak giltzaz

itxiak egon beharko dira.

9- Arauak onartu ezean, ondorioak onartu beharko dira (jantokira joatearen aukera galtzeko arriskua).

GARRAIOA

1.-Eserita eta segurtasun uhala jarrita eramatea derrigorrezkoa da.

2.-Debekatuta dago jatea eta edatea.

3.-Altzariak zaindu eta garbi mantendu beharko dira.

PATIOA

1- Atsedendian patiora edo liburutegira joan beharko dute, bertara isilik eta bultzatu gabe joango dira.

2- Arduradun desberdinen esandakoei kasu

egingo zaie ikastetxean.

3.- Elkarbizitza kaltetuko duen jarrerarik

ez da onartuko.

4.- Berariazko baimenik gabe, atsedendian ikasleak ezin izango dute ikastetxetikatera.

5.- Zaintzan dagoen irakasleak patioa amaitu baino pixka bat lehenago DBHko lehenengo zikloko gelak ireki beharko ditu, eta ikasleriak zuzenean joan beharko du haietara atsedendia bukatu bezain laster. Beharrezkoa da irakasleagoa dagoeneko geletan egotea.

6.-Patioaren zaintza eta mantenua guztion ardura da

LIBURUTEGIA

- 1.- Erabilera emango zaio: Irakurtzeko (bertako liburuak nahiz norberarenak), etxeko lanak egiteko, lanak egiteko, ikasteko, edo ordenagailuak erabiltzeko.
- 2.- Liburutegia erabiltzen duen ikasleak ezin izango du pasabideetan gora eta behera ibili, hori dela eta behin hara bertaratuta, txirrina jo arte liburutegian egon beharko du. .
- 3.- Liburutegian isiltasunaz gain, errespetua izan behar da.
- 4.-Erabiltzen den materiala (liburuak, entziklopediak ...) bere lekura itzuli behar da, modu txukun batean utziz.
- 5.- Ordenagailuak erabili eta gero, beti itzali egin behar dira.

Hori guztiaz gain, mugikorraren erabilera zentro guztian zehar debekatuta dago, irakasleriak espresuki emandako kasuetan izan ezik.

ELKARBIZITZAREN EGUNEROKO KUDEAKETA.

Gizakiok, gizartearen zati bat gara eta beste gizaki batzuen konpainian bizi behar dugu. Horretarako, ezinbestekoa da oinarrizko arau batzuk errespetatzea, enpatia izatea eta besteen eskubideak errespetatzea. Horregatik, diziplina baikor baten beharra dago. Ikasleek, komunikaziorako, errespeturako eta haien artean sortu daitezkeen harremanetarako tresnak behar dituzte. Arlo orotan, lan giroa sustatu, araudia betearazi, ikasleria guztiaren parte-hartzea, irakasleriaren arteko koordinazioa, eta jarrera desegokien aurrean hezkuntza neurriak kudeatu beharko dira.

Irakasle bakoitzak zuzenak ez diren jarrerak zuzendu beharko ditu. Beharrezkoa izanez gero, partea idatzi, gurasoei deitu eta tutoreari jakinarazi. Geroago tutoreak ikasketa burutzan parteak utziko ditu.

Ikaslea ikasgelatik **kaleratua** izaten denean, **zaintza gelara** joan beharko du eta bertan irakasleak agindutako **lana** burutu beharko du. **Partea** eramango du **beti**.

Egoera oso **larria** izanez gero **Ikasketa Burutzak** kudeatuko du. Kasu hauetan ikasleak gertatutakoaren ikuspuntua idatziz egingo du.

Jarrera positiboak indartuko dira, jarrera zuzenak ikastetxean bertan sustatuaz.

Neurri hezigarriak aplikatzerakoan ondorengo irizpideak izango dira kontutan hartuak: Sortarazitako kalteak, sortutako min edo kalteak erreparatzera bideratuak izatea. Hautsi/bete den arauarekin harreman zuzena izatea. Errealista eta bete ahal izateko aukerak izatea. Pertsonen eskubideak errespetatzen dituela bermatzea. Hau guztirako, **201/2008 Dekretua** aplikatuko da, **ikasleen Eskubide eta betebeharez** diharduena, eta aldi berean ikastetxeko **AJA**n idatzita dagoena.

8. ERANSKINAK

- Bizikidetzaren arautegia.
- Jarduera osagarriak.
- Fase bakoitzean eraman ditugun aktak.
- Ikastetxeko Elkarbizitza behatokiaren sorkuntzaren akta.
- Irakasleek, klaustroa eta eskola Kontseiluen aktak.
- Ikastetxearen sektore ezberdinei iragandako inkestak
- Inkesten datu bilketak.
- Datu horien irakurketak egin ondoren atera ditugun ondorioak.
- Balorapenak eta proposamenak